

2023ko Urtekaria



Instituto
Navarro de
la Juventud

Nafarroako
Gazteriaren
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua





Aurkibidea

1. Gazteriaren arloko politika espezifikoak 06

1.1. Gazteentzako Informazio Sarea	06
1.1.1. Sarearen jarduera	
1.1.2. Berriemaileak	
1.2. Hezkuntza ez-formala	09
1.2.1. Prestakuntza	
1.2.2. Aisialdiko eskolak	
1.2.3. Monitore izateko ikastaroak	
1.2.4. ENAJ Sariak	
1.3. Gazte Txartela	14
1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea	17
1.4.1. Gazteentzako programak garatzea toki-erakundeen bidez	
1.4.2. Adingabeak babesteko ordezkaria	
1.5. Gazteria Sariak	19
1.6. Gazteriaren Behatokia	20
2.6.1. Gazteriaren III. Plana	
2.6.2. Gazteen inkesta	
2.6.3. Gradu eta master amaierako lanen sariak	
2.6.4. Parlamentuko jardunaldia	
2.6.5. Gazteentzako Baliabideen Katalogoa	
2.7. Aire zabaleko jarduerak	23
2.7.1. Kanpaldiak eta zeharkaldiak	
2.7.2. Udako jarduerak	
2.7.3. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak	
2.8. Gazte-aterpeak	26

3. Informazio korporatiboa 66

3.1. Erakundeekiko harremana	66
3.1.1. Nafarroako Parlamentua	
3.2. Organigrama	67
3.3. Kide anitzeko organoak	68
3.4. Aurrekontua	73
3.5. Harremanetarako datuak	75

2. Gazteriaren arloko zeharkako politikak 28

2.1. Osasuna	28	2.9. Landa-ingurunea	48
2.1.1. Tok Tok, Ongizate Emozionalerako Aholkularitza		2.9.1. <i>Unx Festival</i>	
2.1.2. Osasun mentalerako prestakuntza		2.9.2. Dirulaguntzen deialdia	
2.1.3. <i>Curiosexando</i>		2.10. Kultura	49
2.1.4. Esku-hartze artistikoa ospitaleetan		2.10.1. Arte Gaztearen Topaketak	
2.1.5. Gazteen Osasun Mahaia		2.10.2. Nafarroa Ezagutu	
2.2. Berdintasuna	32	2.10.3. <i>Punto de Vista</i> jaialdia	
2.2.1. Generoaren ondoriozko arrakalen txostena		2.10.4. <i>Navarra International Film Festival</i>	
2.2.2. Iguala		2.10.5. Literatura-lantegia	
2.2.3. <i>Gerundio</i> lantegia		2.10.6. Ageza (Ezporogi)	
2.3. Hezkuntza	34	2.11. Teknologia berriak	52
2.3.1. Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa		2.11.1. Pantailen gaineko jardunaldia	
2.3.2. RaPoesia		2.12. Parte-hartzea	53
2.4. Enplegua	36	2.12.1. Partaidetza bidezko aurrekontuak	
2.4.1. <i>Reconoce</i> sarea		2.12.2. <i>Noche de Parti</i>	
2.4.2. Prestakuntza-saioen zikloa		2.12.3. <i>PartizipAcción</i>	
2.4.3. Enplegu-azokak		2.13. Boluntarioritza	55
2.5. Ekintzailtza	38	2.13.1. Europako Elkartasun Kidegoa	
2.5.1. Ekonomia soziala		2.13.2. Gazte-auzolandegiak	
2.6. Etxebizitza	39	2.14. Nazioartean parte-hartzea	61
2.6.1. Etxebizitza-foroa		2.14.1. <i>Cañas por Europa</i>	
2.6.2. Emanzipa		2.14.1. Joan, parte hartu eta konta iezaguzu	
2.7. Mugikortasuna	41	2.14.1. <i>Terraza Europa</i>	
2.7.1. Erasmus + Gazteria		2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk	63
2.8. Bizikidetzak	43	2.15.1. Dirulaguntzen deialdia	
2.8.1. Gazteria eta bizikidetzak		2.15.2. Gazteen Entitateen Errolda	
2.8.2. Migrazioari buruzko literatura-topaketak		2.15.3. Gazteriaren Erakunde arteko Kontseilua	
2.8.3. En_Red_Arte		2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua	65
2.8.4. Erbesterako bidea			
2.8.5. Gazteria koloretsua			



Txema Burgaleta Encina

Zuzendari kudeatzailea
Nafarroako Gazteriaren
Institutua

2023an legegintzaldia aldatu da eta, beraz, ilusioz beteriko urtea izan da. Orain hasi dugunaldi berri honetan, aukera izanen dugu 2019an abiatutako lanari segida emateko, orduan berreskuratu baitzen 2012an kendutako Nafarroako Gazteriaren Institutua. Erakunde autonomo hori erreferentea da gazteen arloa egituratzeko beste administrazio batzuekin batera. Gainera, zeharkako gaia da Nafarroako Gobernu osoarentzat, eta gazteen eta erakunde publikoen arteko harremana handiagoa izan dadin errazten du. Zalantzarik gabe, urte hauetako ahaleginak oinarri on bat utzi digu hasitako ziklo politiko berrirako. Hala, 2023-2027 legegintzaldirako helburu argi bat dugu: Nafarroako Gazteriaren Institutua are indartsuagoa bihurtzea, hurrengo aldiari anbizioz begiratu ahal izateko.

Araudiaren garapena bereziki emankorra izan da aurten. Zaharkiturik zeuden arauak eguneratu ditugu, hala nola honako gai hauek arautzen dituzten foru dekretuak: Gazteriaren Kontseilua, Gazteriaren Sariak, eta aisialdiko hezkuntza eskolak eta horiek ematen dituzten titulazioak. Era berean, foru agindu bidez, Gazteriaren Legean garatu gabe zeuden alderdi batzuk garatu ditugu; esaterako, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea, zeina funtsezko elementua baita udalek ere badutelako eskumena arlo horretan, eta Gazteriaren Erakunde arteko Kontseilua, Administrazioak gazteekin harreman handiagoa izan dezan errazteko.

Abian jarritako programei dagokienez, nabarmentzekoak dira Gazteentzako Informazio Sarea berraktibatu izana, berriemaileen programa abiarazi izana 5 herritan, eta Tok Tok sortu izana ongizate emozionalerako aholkularitza gisa. Eta, nola ez, hezkuntza ez-formalaren eremuan berdintasunari eta indarkeria matxisten prebentzioari buruzko ekintzak burutzen lagundu izana, bai eta aisialdiko eta denbora libreko espazioak eskaintzen dituzten programak garatu izana ere, aisialdi hezigarriaren ikuspegitik. Milaka gaztek parte hartu dute jarduera horietan eta beste batzuetan, bai eta gure sormen- eta partaidetza-programetan, kanpamentuetan, boluntarioratzen, tailerretan eta ikastaroetan ere, eta horrek erakusten du zenbateko arrakasta izan duten.

Orain, gure lana bideratu behar dugu 2019an hasitako lan hura sendotzera; horrek aukera ematen digu Nafarroako gazteen konpromisoa eta indarra balioesteko. Izan ere, adin horretan gogo handia izaten da esploratzeko, bidaiatzeko, proiektuetan murgiltzeko, beste pertsona batzuk ezagutzeko, bai eta nork bere burua ere, ikasteko eta dena ulertzeko. Azken batez, ilusioz beteriko adina da, eta gazteek erakusten digute gai direla arazoak gainditzeko eta egoera berrietara egokitzeko, konbentzimenduz jokatzeko eta etorkizun hobe baten alde ahalegintzeko, bai maila indibidualean, bai kolektiboan.



Sarrera

Nafarroako Gazteriaren Institutua Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomo bat da, eta arduratzen da Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legean ezarritakoa gauzatzeaz; horretarako, zeharka jarduten du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organoetan.

Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legearen xedea da gazteria-arloko politika espezifikoak eta zeharkako politika arautzea. Nafarroako gazteak ditu jomugatzat, eta haren helburu nagusia da gazteen autonomia bultzatzea; horretarako, berdintasunean oinarritutako gazteria-arloko politika bultzatuko du, zeinak baldintzarik hoberenak bermatuko baititu norberaren garapenerako, sustapenerako eta parte-hartze sozialerako.

Herritar gazte konprometituak, arduratsuak, osoak eta aktiboak lortzea du helburu. Arauan agindutako helburuak dira hauek ere: elkartasun eraginkorra sustatzea, bai eta aukera-berdintasuna ere, gazte behartuenei arreta berezia eskainiz; pertsonen parte-hartze soziala sustatzea, haien arazo eta premiei buruzko kontzientzia har dezaten sustatuz; gazte-sektoreen aniztasuna lantzea; eta gazteen bizikaltatea hobetzea, gizarte demokratiko, justu eta solidarioa lortzen ahaleginduz, non aisialdiak gazteen beharrei erantzunen dien.

Legeak ezartzen duenez, gazteria-arloko politikak bi kategoriatan banatzen dira, eta urtekari honetan kategoria horietan oinarritu gara Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2023an egindako jarduerak jasotzeko:

Politika espezifikoak: gazteriaren arloan eskumena duen departamentuaren eskumenak, hala nola:

- Gazteentzako informazioa eta aholkularitza.
- Hezkuntza ez-formala gazteriaren arloan.
- Gazteentzako jarduerak eta zerbitzuak, gazte-txartelak, mugikortasuna, aisia eta denbora libre, eta sormena.
- Gazteentzako instalazioak eta ekipamenduak.

Zeharkako politikak: alegia, beste departamentu batzuen eskumenekoak badira ere, gazteengan eragina duten gaiak buruzkoak direnak; ondorioz, zeharkakotasun-printzipioaren eraginpean daude eta Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin lankidetzan gauzatzen dira. Besteak beste, hauek nabarmentzen dira: osasuna, kirola, hezkuntza, enplegua, ekintzaitza, etxebizitza, kultura, ingurumena, parte-hartzea eta boluntarioritza.

Legegintzaldia aldatzearekin batera, Institutua kokatu da Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuan, eta horren arduraduna da Nafarroako Gobernuko hirugarren lehendakariordea. Beraz, aurreko legegintzaldiari dagokionez (2019-2023), departamentua aldatu da, baina erakundeak lehendakariordetzetako bati atxikita jarraitzen du, eta horrek bere ekintzen zeharkakotasuna bermatzen du. Gainera, Gazteria departamentuaren izen ofizialean ageri da, lehen ez bezala.

Horretaz gain, azaroaren 15eko 242/2023 Foru Dekretuaren bidez, eguneratu egin dira Nafarroako Gazteriaren Institutua erakunde autonomoaren estatutuak; hori bai, mantendu egin dira haren helburu orokorrak, hau da, gazteen eskubideak babestea, gazteek garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalean askatasunez eta eraginkortasunez parte hartzearen bitartez.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikokoak

- 1.1. **Gazteentzako Informazio Sarea**
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

Gazteei informazioa eta aholkularitza ematearen helburua da gazteei orientazio eta aholkularitza integrala ematea. Horri esker, aukerak sortzen zaizkie eta erabaki aske eta arduratsuak hartzen dituzte, beren garapen pertsonalaren eta ahalduntzearen bidean. Aitortutako gazte-informazioko zerbitzuen bidez ematen da.

Gazteen eskubide bat da, zeina zaintzen baitu Nafarroako Gazteentzako Informazio Sareak (abuztuaren 22ko 109/2005 Foru Dekretuaren bidez arautua). Sarearen helburua da gazteei parte hartzeko eta inplikatzeko behar duten orientazioa ematea, herritar aktiboak izan daitezen. **Nafarroako Gazteentzako Informazio Sarea honako hauek osatzen dute:**


Gazteentzako Dokumentazio eta Informazio Zentroa: haren eginkizunetako bat da Sarea sendotzea, sustatzea eta koordinatzea.

Gazteentzako informazio-bulegoak: 15 bulego dira, Nafarroa osoan barna banatuak. Gazteek zuzeneko kontsultak egin ditzakete horietan, eta arreta pertsonala jasotzen dute, behar duten informazioa errazago eskuratzeko.


Gazteentzako informazio-guneak: 14 daude Nafarroan. Informazioa hedatzen dute egokitzen jotzen duten edozein bitartekoren bidez (informazio-panelak, zuzeneko arreta, Internet, argi-

14. artikulua. Gazteriaren arloko politika espezifikokoak.

Gazteriaren arloan eskuduna den departamentuak gazteriaren arloko politika espezifikokoak garatuko ditu, honako hauen gainean:



talpenak, eta abar); informazio hori izaten ahal da Gazteentzako Dokumentazio eta Informazio Zentroak emandakoa, edo hurbilen dagoen gazteentzako informazio-bulegoak, edo beren kabuz bildutakoa.



1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

1.1. Gazteentzako Informazio Sarea


- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.1.1. Sarearen jarduerak

2023an, Gazte Informazio Sareko kide guztien 4 bilera egin dira, informazioa emateko eta kideek esateko zituztenak partekatzeko.

Bilera horiek Nafarroako toki desberdinetan egin dira. Gainera, Gazte Informazio Sarearen Batzordeak bi bilera egin ditu, informatzeko eta eztabaidatzeko. Bestalde, Nafarroako gazteentzako informazio-gune eta -bulegoak bisitatu dira (28 guztira), zerbitzu bakoitzaren eta Sarearen beraren bilakaera ezagutzeko.

Gazte Informazio Sarearen erronkei aurre egiteko, 2023ko maiatzean, Nafarroako Gazte Informazio Sarearen II. jardunaldia antolatu zuen Nafarroako Gazteria Institutuak. Jardunaldi horretan, berrogeita hamar profesional inguru bildu ziren; asmoa zen jardunaldia finkatzea gazteen informazioarekin zerikusia duten gaien buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko gune gisa, bai eta arlo horretako esperientziak eta ezagutzak trukatzeko gune gisa ere. Jardunaldian, aurreko urtean lortutako gauzarik garrantzitsuenen azalpena eman zen, lantaldeen emaitzak aurkeztu ziren eta diseinatu zen nola ezagutarazi Gazte Informazioko Sarea bera.



Jardunaldian, halaber, bi eskuliburu aurkeztu ziren, zeinak baitaude Sarearen eta kide berri izan litezkeen eskura:

- Nafarroako gazteentzako informazio-zerbitzuen sarean sartzen diren profesionalentzako.

Dokumentua hemen kontsulta dezakezu

- Nafarroan gazteentzako informazio-zerbitzuak sortzeko eskuliburu.

Dokumentua hemen kontsulta dezakezu

Horiek zenbait jarraibide ematen dituzte arlo horretan lanean hasten diren profesionalentzat, eta jasotzen dute zer tresna dauden mota horretako informazio-zerbitzuak sortzeko. Biak ere elkarlanean egin ziren, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren eta Nafarroako zenbait udaletako gazteentzako informazio-zerbitzuen artean. Gainera, eskuliburu horiek jardunbide egoki gisa aurkeztu ziren Gazteentzako Informazio eta Aholkularitzarako Europako Agentziaren (ERYICA) iberiar penintsula eta uharteetako taldearen topaketan, Institutua talde horretako partaide baita; azaroan egin zen topaketa, Oporton.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak



1.1. Gazteentzako Informazio Sarea

- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

Sarearen esparruan hainbat prestakuntza ere antolatzen dira Sareko profesionalentzat (zehazki, gazteekin lan egiten dutenentzat):

Deskribapena	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Canvari buruzko web-mintegia	22	5	27
Exceli buruzko web-mintegia	8	3	11
Mailmarketingari buruzko web-mintegia	11	3	14
Eryica Gutuna	7	3	10
Nola konektatu gazteekin	10	7	17
Osasun mentala eta nerabezaroa (I, II, III, IV, V)	80	10	90
Gazteentzako informazio-zerbitzuak diseinatzea	11	2	13
Hezkuntza afektibo-sexuala	16	3	19
Pantailekiko mendekotasuna	16	6	22
Denera	181	42	223

Gainera, Nafarroako Gazteriaren Institutuak, Gazteentzako Informazio eta Aholkularitzarako Europako Agentziako (ERYICA) eskubide osoko kidea den aldetik, parte hartu du Europako gainerako bazkideekin online egindako hainbat lan-bileratan. Biler horietan, besteak beste, gai hauek landu dira: gazteen partaidetza, osasun mentala, gazte errefuxiatuak, eta abar.

Bestalde, Nafarroako bi profesionalak ERYICako prestatzaile-ziurtagiria eskura dezaten erraztu da: horri esker, Sareko langileek etengabeko prestakuntza izanen dute. Horri dagokionez, Nafarroako Gazteriaren Institutuak gaztelaniara itzuli du prestakuntzako eskuliburuetakoa bat.

ERYICaren barneko iberiar penintsula eta uhartertako taldeko kide den aldetik, 2023an Institutuak lagundu du berriemaileen gida diseinatzen, berriemaileen mapa eguneratzen eta apirilean egindako berriemaileen zibertopaketa antolatzen eta garatzen.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak



1.1. Gazteentzako Informazio Sarea

- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.1.2. Berriemaileak

Nafarroako Gazteriaren Institutuak abian jarri du gazteentzako informazioa emateko berriemaileen programa. Bertan, ikasle gazteek informazio interregarrria zabalduko dute ikaskideen artean, hainbat gairi buruz: bekak, prestakuntza-ikastaroak, aukerak, mugikortasun-programak eta ongizate emozionala, besteak beste.

Helburu hauek ditu: gazteentzako informazio-zerbitzuak hobetzea, gazteentzako informazioaren esparruan parte-hartzea sustatzea, aisialdi hezigarria eta balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea, kalitatezko informaziorako sarbidea erraztea eta aukera-berdintasunean laguntzea.

Berariaz, bilatzen du hobeki hedatzea gazteentzako informazioa Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleen artean, gazteen bidez hedatuta; izan ere, informazioa berdinen artean eta gazteen berezko bideen bitartez zabaltzen da hala.

Ekimen horrekin bat egin duten ikastetxeak honako hauek dira: Sarriguren BHI, Salesianos IBP, Ega institutua, Ilundain Haritz Berri fundazioa, Lizarraldea BHI, Lizarra Ikastola, Lizarrako IBP, Tafallako Escolapios ikastetxea, Garcés de los Fayos ikastola eta

Sancho III el Mayor BHI. Ikastetxe horiek Aranguren, Lizarran, Tafallan, San Adrianen eta Eguesibarrren daude. Bost herri horiek aukeratzeko irizpideak izan dira banaketa geografikoa eta gazteen presentzia, eta udal horiek guztiek badute Gazteentzako Informazio Sarean sartutako gazteentzako informazio-zerbitzua. Horrela, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez, programa hori Foru Komunitateko beste herri batzuetara ere hedatu du ikasturte honetan, esperientzia pilotu gisa; izan ere, gaur egun, Iruñean eta Altsasun baizik ez dago, udalen ekimenez.

Berriemaileen Estatu-mailako Topaketa Palentzian

Nafarroako Gazteriaren Institutuak ahalbidetu du Iruñeko eta Altsasuko zazpi gazte Palentziara joatea, ekainean egindako Gazte Berriemaileen Estatu-mailako 2. Topaketara. Topaketa horretan estatu osoko 130 gazte bildu ziren.

Apirilean, IrrisarriLand-en Nafarroa-mailako jardunaldi bat egin zen berriemaileekin, izaera ludikokoa, Iruñeko eta Altsasuko berriemaileen udal-programetan parte hartzen dutenekin.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala**
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.2.1. Prestakuntza

Aisialdiko monitoreen prestakuntza funtsezko tresna da haurrei eta gazteei haien garapen pertsonalean lagun egiteko. Arlo hori oso lotua dago lurraldearekin, eta laguntzen du bazterkeria-egoei aurrea hartzen; izan ere, biltzen ditu bai prestakuntzaren alderdia, bai harremanen alderdia, eta lortzen du baliabide gutxien dituztenentzat eskuragarria izan dadin aisialdi garaiko hezkuntzaz gozatzea. Aisialdi hezigarri eta komunitarioa zera da: elkarbizitza, atsedena, dibertsioa eta garapen pertsonala. Gainera, alderdi ludiko bat du, eta hori ezinbestekoa da pertsonen oreka sozial, fisiko, psikologiko eta emozionalerako.

Horregatik da azpimarratu beharrekoa aisialdiko monitoreen prestakuntzan zeinen eginkizun garrantzitsua betetzen duten irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta toki-erakundeek, herritarrengandik hurbilen dauden administrazio-erakundeak diren aldetik. Halaber, garrantzitsua da lan hori egiten duten profil profesionalen prestakuntza behar bezala arautzea. Izan ere, oso eginkizun desberdinak betetzen dituzte, hala nola prestakuntza, taldearen animazioa, antolaketa, segurtasuna eta, batzuetan, bitartekaritza ere bai.

Gazteriaren arloko hezkuntza ez-formaltzat hartzen da, arautu gabeak izanik, pertsonaren garapena bultzatzen duten jarduera-eremuen multzoa. Nafarroako



arroako Gazteentzako Jardueren Eskolak eta aisialdiko hezkuntza-eskolek dute emateko ahalmena.

236/1999 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskola (NGJE) sortu zen, eta, urtero, doako prestakuntza askotarikoa programatzen du. Bukatzean, parte hartzen dutenek diploma edo ziurtagiria lortzen dute. Eskola horrek eginkizun garrantzitsua betetzen du, hainbat ikastaro eta programa antolatzen baititu, gazteei eta gazteriaren arloko gaitan aritzen diren profesionali bereziki zuzenduak. Eskaintzen dituen ikastaroek gaur egungo gaiak jorratzen dituzte, eta gazteei interesatzen zaizkien alderdietara hurbildu edo horietan sakontzea izaten da asmoa. Gazteentzako prestakuntza.

2023an egindako ikastaroak:

DESKRIBAPENA	Emakumeak	Gizonak	Denera
Motibazioa eta autoestimua – Tutera	6	11	17
Taldeak dinamizatzeko lantegia, kontzientziatik eta gorputz-adierazpenetik abiatuta	14	2	16
Talde-lana – Tutera	4	10	14
Nutrizioari buruzko lantegia	17	2	19
Gailu mugikorrek konpontzea	4	10	14
Enpresek gehien eskatzen dituzten gaitasunak eta marka pertsonala – Tutera	9	8	17
Ikasteko teknikak	5	5	10

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala**
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

DESKRIBAPENA	Emakumeak	Gizonak	Denera
Lehen sorospenak	13	5	18
Adimen emozionala eta gizarte-trebetasunak – Iruña	15	5	20
Lehen sorospenak eta desfibriladorea	12	4	16
Estresaren kudeaketa – Tutera	4	13	17
DJ ikastaroa – Berriozar	7	8	15
Eskola-jantokiko laguntzailea – Tutera	21	1	22
Adimen emozionala eta gizarte-trebetasunak – Etxalar	9	2	11
Denboraren kudeaketa – Tutera	6	16	22
Ludoteketarako prestakuntza	12	1	13
3D inprimaketaren hastapenak	9	7	16
Zeinu-hizkuntza – Altsasu	20	6	26
Lana bilatzeko iturriak – Tutera	10	21	31
Osasun-hezkuntza	11	5	16
Ludoteketarako prestakuntza – Los Arcos	14	4	18
Berdintasuna eta feminismoa	13	3	16
3D inprimaketa – Ameskoa	4	7	11
Gailu mugikorrek konpontzea – Oteitza	1	6	7
Bizikidetzeta eta bizipenak – Berriozar	19	30	49



DESKRIBAPENA	Emakumeak	Gizonak	Denera
Curriculum eta aurkezpen-gutuna – Tutera	3	10	13
Hezkuntza afektibo-sexuala BHI hauean: Lekaroz, Barañain, Atarrabia, Lizarra, Altsasu, Iruña	371	353	724
Lan-elkarrizketa – Tutera	10	5	15
Monitoregaiak	15	2	17
TikToken edukiak sortzea	9	3	12
Lehen sorospenak	20	0	20
Talde-dinamikak – Tutera	0	17	17
Muralismo parte-hartzailea – San Adrián	8	6	14
Adimen emozionala eta trebetasun sozialak	4	13	17
Lehen sorospenak	19	3	22
Ubuntu. Banaiz bagarelako	12	6	18
Harrerarako estrategiak eta tresnak, eta migrazio-doluan lagun egitea	15	4	19
Hezkuntza-arloko esku-hartzea adingabeekin	16	7	23
Adimen emozionala eta trebetasun sozialak	18	2	20
Test psikoteknikoak – Tutera	0	15	15
Lehen sorospenak eta desfibriladorea	10	5	15
PARTE-HARTZAILEAK, DENERA	789	643	1.432

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

1.1. Gazteentzako Informazio Sarea

1.2. Hezkuntza ez-formala

1.3. Gazte Txartela

1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea

1.5. Gazteria Sariak

1.6. Gazteriaren Behatokia

1.7. Aire zabaleko jarduerak

1.8. Gazte-aterpeak

1.2.2. Aisialdiko hezkuntza-eskolak

2023an onetsi da 56/2023 Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, zeinaren bidez arautzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, aisialdiko hezkuntza eskolak eta horien irakaskuntzak aitortzeko bidea. Testu berriak, 20 urte igaro ondoren, eguneratu egiten du arlo horren erregulazioa, bat etor dadin haur eta gazteentzako aisialdi hezigarriaren errealitate berriarekin. Eguneratzeaz gain, egokitu ere egiten du erregulazioa; zehazki, arlo horri eragiten dion lanbide-kualifikazioei buruzko araudira.

Foru dekretu horren babesean ofizialki aitortzen diren aisialdiko hezkuntza-eskolek honako prestakuntza hauek emateko ahalmena izanen dute: haur eta gazteentzako aisialdiko jardueretako monitorea, eta zuzendaria, bai eta beste prestakuntza osagarri batzuk ere. Ikastaro eta irakaskuntza horien diplomak ofizialki aitortuko ditu Nafarroako Gazteriaren Institutuak. Dekretu horrek indarra hartu duenetik, prestakuntza-edukiak berberak dira Estatu osoan; horri esker, titulazioak homologatu dira eta jarduera horretan diharduten profesionalentzat errazagoa da erkidego batetik bestera mugitzea.



Aitorpen horren bidez egiaztatzen diren eskolak sartuko dira Nafarroako Gazteriaren Institutuaren aisialdiko hezkuntza-eskolen katalogoan. Katalogo hori publikoa da eta haren helburua da informazioa ematea.

2023. urtearen bukaerako balantzeari dagokionez, baja eman zaio 42 grados aisialdi-eskolari, eta ofizialki aitortuak daude honako aisialdiko hezkuntza-eskola hauek:

- Lurberri AE
- Urtxintxa AE
- Elizbarrutiko AE
- Berriozarko udalaren AE
- Micudala AE
- Gaurko Lurra AE
- Aisiola AE

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

1.1. Gazteentzako Informazio Sarea

1.2. **Hezkuntza ez-formala**

1.3. Gazte Txartela

1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea

1.5. Gazteria Sariak

1.6. Gazteriaren Behatokia

1.7. Aire zabaleko jarduerak

1.8. Gazte-aterpeak

1.2.3. Monitore izateko ikastaroak

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, urtero, aisialdiko monitore eta zuzendari izateko ikastaroak kudeatzen ditu; Nafarroako Gobernuak ofizialki aitortutako aisialdi-eskolek ematen dituzte.

Ikastaroen helburua da gaitasuna ematea gazte-elkarteak zuzentzeko, gazteentzako jarduerak sustatzeko, naturan jarduerak antolatzeko eta giza-heziketa handitzeko. Ikastaroak egin ondoren, parte-hartzaileek titulua lortzen dute.

2023an, aisialdiko monitore izateko 24 ikastaro hasi dira, eta 499 pertsona matrikulatu dira (336 emakume eta 163 gizon). Era berean, aisialdiko zuzendari izateko 2 ikastaro hasi dira, eta 26 pertsonak eman zuten izena (14 emakume eta 12 gizon).

Hauek dira 2023an monitore izateko ikastaroak eman dituzten eskolak:

- **Urtxintxa AE:** 11 ikastaro (157 emakume eta 73 gizon, 230 lagun denera).
- **Micudala AE:** 3 ikastaro (62 emakume eta 21 gizon, 83 lagun denera).
- **Berriozar AE:** 2 ikastaro (31 emakume eta 11 gizon, 42 lagun denera).

- **Lurberri AE:** 7 ikastaro (71 emakume eta 41 gizon, 112 lagun denera).
- **Elizbarrutiko AE:** 1 ikastaro (15 emakume eta 17 gizon, 32 lagun denera).

Segidan, zuzendari izateko 2023an emandako ikastaroak:

- **Lurberri AE:** 1 ikastaro (12 emakume eta 6 gizon, 18 lagun denera).
- **Elizbarrutiko AE:** 1 ikastaro (2 emakume eta 6 gizon, 8 lagun denera).

316 gaztek (219 emakume eta 97 gizon) aisialdiko monitore-titulua jaso dute 2023an. Gainera, 27 pertsonak (18 emakume eta 9 gizon) aisialdiko zuzendari titulua jaso dute.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak dirulaguntzak eman dizkie ikastaro horiek egin dituzten 243 pertsonari (198 emakume eta 45 gizon); **denera, 44.842,51 euro.**



1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak



III. EDIZIOA SARIAK ENAJ



1.1. Gazteentzako Informazio Sarea

1.2. Hezkuntza ez-formala

1.3. Gazte Txartela

1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea

1.5. Gazteria Sariak

1.6. Gazteriaren Behatokia

1.7. Aire zabaleko jarduerak

1.8. Gazte-aterpeak

1.2.4. Aisialdiko hezkuntza-proiektu hobereen sariak

Aisialdiko hezkuntza-proiektu hoberenei ematen zaizkien "NGJE" sarien helburua da aisialdi hezi-garria sustatzea eta ikasleek aurkeztutako proiektuen hedapena erraztea; izan ere, aisialdiko monitore eta zuzendari izateko ikastaroen bukaeran, ikasleek proiektua jasotzen duen memoria aurkeztu beharra dute.

Nafarroako Gazteriaren Institutuko langileek osatutako epaimahai batek baloratu zituen aurkeztutako lanak, eta hauek izan ziren irabazleak:

1. saria – 600 €: Uxue Ibiricu Goñi
2. saria – 400 €: Valentina Redín Morales
3. saria – 200 €: Ilazki Muniáin Barrachina




1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela**
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak


Europako Gazte Txartela 1987ko ekainaren 1eko Lisboako Protokolotik sortutako programa da, gazteen mugikortasuna eta elkarren arteko komunikazioa errazteko eta kultura- eta gizarte-ondasunak haien eskura jartzeko.

Programa hori Gazteria eta Haur Ministerioarekin garatzen da, Instituto de la Juventud (INJUVE) delakoaren bitartez, gainerako autonomia-erkidegoekin batera. Europako 30 herrialdek baino gehiagok osatzen dute *European Youth Card Association (EYCA)*; elkarte horrek bermatzen du atxikitako herrialdeetan prestazioen elkarrekotasuna izanen dela. Nafarroan, Gazte Txartela programa Nafarroako Gazteriaren Institutuak antolatzen du, Nafarroako Rural Kutxarekin eta Imaginekin elkarlanean.

Gazte-txartelak, besteak beste, deskontuak eta prezio bereziak eskaintzen ditu jardueretan nahiz kontzertu, antzoki eta zinemetarako sarreretan, eta establezimendu laguntzaileetan abantaila gehiago izan daitezten bultzatu du 2023an; 12 eta 30 urte bitarteko gazte titularrei zuzendua dago. 2023an, urte bukaerarako, Europako Gazte Txartelak titularrei 309 abantaila eskainiak zizkien, dituen 276 erakunde laguntzaileen bitartez.






2023an, Nafarroako Gazte Txartela programaren titularren kopuruak % 5,83 egin zuen gora 2022ko datuekin alderatuta. Honela laburbiltzen da modalitate bakoitzeko titularren banaketa:



DENERA: 91.960* (45.450 gizonezkoak | 46.510 emakumezkoak)

*Kontuan izanik pertsona bat modalitate batean baino gehiagotan titular izan daitekeela, Nafarroako Europako Gazte Txartela duten gazteen kopuru absolutua hau da: 82.339 lagun.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak




- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela**
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

EKITALDIAK	Inskripzioen kopurua
UDA HONETAN, GONBIDATUA ZAUDE!	36
Jokatu golfean lehen aldiz	89
ZENTRALERAKO DESKONTU-BONUA	160
"SUAKAI" IKUSKIZUNERAKO DESKONTU-BONUA	12
Urpekaritza Hondarribian	269
2023ko UDALEKUAK (QR KODEAREKIN 25 EUROKO DESKONTUA)	44
QR kodeak hauetarako: Ibai-jaietsiera txalupa pneumatikoan - Kartinga - Surfa	43
"GAZTEZINEMA" LEHIAKETA	2.608
LORTU % 25eko DESKONTUA FILMINERAKO	40
Ezagutu gazte-aterpeak REAJ bonuarekin	50
Ezagutu Surfaren mundu zoragarria	166
EZAGUTU ESKALADAREN MUNDUA MUGITU-REKIN; IV. EDIZIOA	140
EZAGUTU ESKALADAREN MUNDUA ROCOPOLIS-EN; V. EDIZIOA	644
GOZA EZAZU FILM SYMPHONY ORCHESTRAREN "HENKO" IKUSKIZUNAZ	45
GOZA EZAZU FILM SYMPHONY ORCHESTRAREN "KRYPTON" IKUSKIZUNAZ	92
GOZA EZAZU "TUNDRA" ERAKUSKETAZ BALUARTEREN 20. URTEURRENEAN	92
Gozatu egun batez Irrisarri Land-en	95
HAR EZAZU ASTEBURU BAT LAREDON SURFA EGITEKO	283
Goza ezazu 2023ko "Punto de vista" jaialdiaz zure gazte-txartelarekin	26
Har ezazu egun bat karting-a egiteko Nafarroako zirkuituan	167
DIBERTITU ALIADOSEN LASER TAG ABENTURAREKIN	485
Emmusikadas	49
<i>En Baluarte cumplimos veinte, veinte! Zatoz!</i>	71
ESKI ALPINOA FORMIGALEN	2.479
IRAUPEN-ESKIA LARRA-BELAGUAN	439
SOINU-ESTAZIOAK (2023)	82

EKITALDIAK	Inskripzioen kopurua
EGUBERRI HAUTAN, ERLAXATU ETA GOZA EZAZU ZIRKUITU TERMAL BATEZ	2.140
EGUBERRI HAUTAN, BERRIZ ERE BADUZU ESCAPE ROOMA; VI EDIZIOA	1.407
HALLOWEEN HONETAN "SENDAVIVA HORROR NIGHTS"-ERA ERAMANEN ZAITUGU	647
SANTASPASCUAS JAIALDIA (2023)	123
Har ezazu asteburu bat Irati ibaian urean ibiltzeko	37
<i>Flamenco On Fire</i> (2023)	38
"NAFARROAKO GAZTE TXARTELA" I. PADEL TXAPELKETA	94
<i>Surfskatean</i> hasteko tailerra	14
LOS 40 DANCE FESTIVAL NAVARRA	220
Pilotako 2023ko masterrak	166
Abentura sail bat Baztan Abentura Parken	527
Nautika Allozko urtegian	25
Nautika Allozko urtegian II	15
NAVARRA LAN PARTY	8
PRIMERAKO EGUBERRIAK ZINEMAN - GOLEM	2.057
PRIMERAKO EGUBERRIAK ZINEMAN - LAS CAÑAS	106
PRIMERAKO EGUBERRIAK ZINEMAN - OCINE	186
PADELA EGUBERRIETAN; IV. EDIZIOA	536
Ibili zaldi gainean basoan	83
EGUBERRIOTAN ZATOZ IZOTZ GAINEAN PATINATZERA (VII. edizioa)	1.265
GAZTE TXARTELA: lehen <i>disc golf</i> txapelketa	16
2x1 SUSTAPENA PORTAVENTURA PARKERAKO	1.648
2x1 SUSTAPENA PORTAVENTURA PARKERAKO + FERRARI LAND	597
"VUELA CON IBERIA" SUSTAPENA	332
2023ko Goya sarietarako kiniela	75
2023ko Oscar sarietarako kiniela	406
ELURREKO ERRAKETAK LARRA-BELAGUAN	407

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela**
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak



EKITALDIAK	Inskripzioen kopurua
"REAJ aterpekide-txartela" opari	208
<i>River Walking</i> eta eskalada Estellerrian	23
BTT ibilbideak eta ibilbide termala Elgorriagako bainuetxean	546
Ibilaldia BUGGYan, antzinako galtzada erromatarrean barna, eta turroia egiteko lantegia	102
Ibilaldia BUGGYan, antzinako galtzada erromatarrean barna, eta olio-dolare batera bisita	175
Eguberriotan 10 erosketa-saski zozketatzen ditugu	1.961
Lantegia: "Sortu zeure <i>flipbook</i> animatua"	7
Lantegia: "Egin itzazu loreekin eskumuturrekoa eta lepokoa"	25
<i>Sticker</i> Artari buruzko sormen-lantegia: "Sortu zeure eranskailu originalak"	28
SORMEN-TAILERRA: "SHARPIE TEKNIKAREN BIDEZ PERTSONALIZATUTAKO KATILUA"	31
Japoniar eran koadernatzeko lantegia	19
Zurezko bitxigintzako lantegia	19
Ornitologia-lantegia	17
Lantegia: "Egin itzazu loreekin eta aletxoekin belarritakoak eta eskumuturrekoa"	80
Lantegia: "Izpilikuari argazkiak ateratzeko irteera"	9
Dantza-lantegiak: "Reggaeton" eta "Commercial"	26
UNX FESTIVAL	17
Zatoz Gallego ibaia ezagutu eta <i>rafting</i> a egitera (2023)	47
Zatoz Nafarroako Fimotekara zure gazte-txartelarekin	32
Bisita gidatu mikologikoa ULTZAMAN	116
Bisita gidatu mikologikoa ERROIBARREN eta ORREAGAN	56
2023ko GAZTERIAREN SARIETAKO BOZKETAK	483
WORLD TRIAL INDOOR 2023	102
DENERA	26.010

Nafarroako Gazte Txartelaren aplikazioa

Ekainaren 16tik, programak badu bere aplikazioa; titularrentzat eta erakunde laguntzaileentzat da. Nafarroako Europako Gazte Txartelaren titular diren guztiek, hala nahi izanez gero, badute aplikazioa deskargatzeko aukera, besteak beste, gazte-txartel digitala beren gailu mugikorrean edukitzeko, jardueretan eta sustapenetan izena azkar eta erraz emateko, beren inskripzioen historikora sartzeko eta programaren jakinarazpen eksklusiboen berri emanen dien push sistema bat edukitzeko.

Aplikazioak jada 2.968 deskarga izan ditu; iOS eta Android sistemetarako dago eskuragarri, eta hurrengo eguneraketetan prestazio berriak gehituko zaizkio.

Aisialdi inklusiboa

Aurten ere, gazte guztien inklusioa kontuan hartu da programak egindako jardueretan. Pobreziaren eta Gizarte-bazterketaren kontrako Nafarroako Sarearekin lankidetzan aritu gara eta, horri esker, Sareari atxikitako entitateetan bazterkeria-arriskuan dauden gazteek aukera izan dute plaza erreserbatuen bidez parte hartzeko.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea**
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.4.1. Gazteentzako programak garatzea toki-erakunde bidez


Gazteen aukera-berdintasuna bultzatzeko helburuz, Nafarroako Gazteriaren Institutuak tokiko erakundeei laguntza eta aholkularitza ematen die tokiko gazteria-arloko politikak indartu eta sustatzeko.

Toki-erakundeentzako dirulaguntzen deialdian, **308.392,34 euroko laguntzak jaso zituzten**, hainbat alderditan eragina duten gazteria-programak garatzeko, hala nola prebentzioaren, informazioaren, prestakuntzaren eta mugikortasunaren arloetan zerbitzuak eta jarduerak garatzeko, bai eta gazteen eskaerei erantzuten dieten beste gai batzuetan ere. Zehazki, honako hauek eragindako gastuak laguntzen dira diruz: gazteriaren arloko teknikari berriak kontratatzea eta zeudenak finkatzea, gazteriari buruzko tokiko planak eta diagnostikoak egitea eta gazteentzako jarduera-programak antolatzea.



TOKI ERAKUNDEA	ZENBATEKOA €
Altsasuko Udala	24.114,86 €
Antsoingo Udala	7.660,95 €
Barañaingo Udala	14.827,91
Beriaingo Udala	3.021,91 €
Berribeitiko Udala	8.557,85 €
Berriozarko Udala	3.604,28 €
Burlatako Udala	24.426,80 €
Lizarrako Udala	10.337,06 €
Etxarri Aranazko Udala	831,19 €
Faltzesko Udala	1.500,00 €
Uharteko Udala	27.074,55 €
Leringo Udala	1.500,00 €
Orkoiengo Udala	3.166,67 €
Iruñeko Udala	34.320,56 €
Azkoiengo Udala	8.344,86 €
San Adriango Udala	4.859,97 €
Tafallako Udala	19.728,52 €
Tuterako Udala	27.643,82 €
Atarrabiako Udala	14.154,20 €
Zizur Nagusiko Udala	24.152,08 €
Arangurengo Udala	30.124,74 €
Eguesibarko Udala	14.439,56 €

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak



- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea**
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.4.2. Adingabeak babesteko ordezkaria

Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak betebeharrak ezartzen dizkie administrazio publikoei eta kirol- eta aisialdi-erakundeei, ingurune seguruak sor ditzaten eta berma dezaten adingabeen babes integrala emanen zaiela indarkeriaren aurrean (47. eta 48. artikulua).

Horrela, bada, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduteko protokoloak arautu behar dituzte. Protokolo horietan jaso behar da zer jarduketa eginen diren ingurune seguru bat eraikitzeko kirolaren eta aisialdiaren arloan, eta horiei jarraitu behar zaie kirolaren eta aisialdiaren arloan haurren eta nerabeen aurka gerta litezkeen indarkeria-egoerak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horietan esku hartzeko.

LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko 8/2017 Foru Legeak eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legeak ere ezartzen dute protokolo horiek egiteko beharra.

Horregatik, Nafarroako Gazteriaren Institutuak protokolo bat prestatu du eta erakundeetan adingabeak babesteko ordezkaria izendatu du. Haren eginkizunetako batzuk hauek dira:

- Aisialdiko jardueretan dabiltzan haur eta nerabeentzat erreferentziako pertsona izatea, harengana jo dezaten kezka bat dutenean, edo indarkeria-egoerak gertatzean, edo haien eskubideak urratzen direnean.
- Haurren aurkako indarkeria-egoeraren bat antzematen bada, adingabeak babesteko ordezkariak abiarazi behar ditu egin beharreko komunikazioak.
- Agintari eskudunei informazioa ematea delitu diren indarkeria-kasuak gertatzen direnean.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak**
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

2023an araudia eguneratu da, aurrekoa 1998koa baitzen, eta onetsi da 11/2023 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteria Sariak arautzen dituena. Araudi berriarekin hiru berrikuntza garrantzitsu txertatu dira 2023ko edizioan. Alde batetik, edozein pertsona fisikok edo erakundek bere proposamena aurkezteko aukera; edizio honetan, 29 hautagaitza aurkeztu dira. Bestalde, herritarrek bozkatzeko sistema bat antolatzea, Gazte Txartelaren titularrek beren hautagairik gogokoena hauta ditzaten; 483 gaztek parte hartu dute, eta kopuru hori zati berdinetan banatu da hiru kategorien artean.

Sarien helburua da Nafarroako gazteen partaidetza soziala, autonomia eta bizi-kalitatea bultzatzeko balio izan duten lanak eta ibilbideak saritzea, izan norbanakoenak nahiz taldeenak. Banaketa-ekitaldia abenduaren 1ean egin zen, Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan, Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andrearen eskutik. Hauek izan ziren sarien 26. edizioko irabazleak:

- **“Gazteari saria”** kategoria: horrekin, saritzen da gizarte-balioei loturiko ibilbide pertsonala duen Nafarroako gazte bat. Aurten, Sergio Eslava Arraizak jaso du; pianista, saxofonista, historialaria eta irakaslea da eta hiru jarduera uztartzen ditu, irakaslea, ikerlarria eta musikari profesionala baita.



- **“Gizarte partaidetzaren saria”** kategoria: horrekin, saritzen da gazteen partaidetza soziala sustatzen duen Nafarroako talde edo elkarte bat. Aurten, NUPeko Urretxindorra proiektuak jaso du; horretan, unibertsitateko gazteek beren burua eskaintzen diete lehen hezkuntzako ikasleei, komunitatean parte hartzen lagunduko dieten jarduera ludikoak eta kulturalak egiteko.
- **“Erakunde edo entitatearentzako saria”** kategoria: horrekin, saritzen da gazteen partaidetza soziala, autonomia eta bizi-kalitatea indartzera eta/edo lantzera bideratutako jarduera duen erakunde bat. Aurten, Haziak elkarteak jaso du; haren helburua da Nafarroan tutoretzapean dauden eta egondako gazteei gizareratzen laguntzea eta trebakuntza ematea bitzta oparoa izan dezaten.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia**
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.6.1. Nafarroako Gazteriaren III. Plana (2021-2023)

Plan horrek biltzen du, batetik, Nafarroako Gazteriaren Institutuak eta, bestetik, harekin lankidetzan aritutako departamentuek, erakundeek, elkar-teenk eta gazteek egindako ahalegin kolektiboa; hala, ekintza-programa zabala eta osoa garatu dute, Nafarroako gazteen gizarte-errealitateari erantzuteko. **Plan horretan uztartu dira ezarritako helburuak lortzeko, Nafarroako Gobernuak**, bere departamentuen bitartez, gazteen esku jarritako baliabide ekonomikoak, sozialak, politikoak eta materialak.

2023. urtea plan horren indarraldiko azkena izan da. 2021eko martxoan onetsi zen, elkarrizketa egituratu oinarritutako prozesu bati jarraituz, eta Gazteriaren Foru Estrategia (2020-2023) abiapuntu gisa hartuta. 2023rako 153 ekintza aurreikusi ziren, zeinak garatu baitira zeharkakotasunaren eta lan partekatuen ikuspegitik, 64,71 milioi euroko gastu-aurreikuspenarekin.

Dokumentua hemen kontsulta dezakezu



1.6.2. Nafarroako gazteen inkesta

Inkesta horren bidez, gazteen portaerak ikertu eta aztertzen dira, gaur egun duten errealitatea eza-gutzeko. Inkesta hori bi urtean behin egiten da, eta aurrekoa 2021ean aurkeztu zen.

Aurtengoaren helburua da, aurreko urteetan egindako azterketen ildotik, Nafarroan gazteak gaur egun nolakoak diren jakitea. Horretarako, inkesta bat egin zitzaion Nafarroako gazteei, 14 eta 30 urte bitarteko 1.400 pertsonako lagina hartuta. Haiei eragiten dieten hainbat gairi buruz galdetu zitzaion, hala nola **prestakuntzari, enpleguari, osasunari, kulturari, balioei eta sinesmenei eta etorkizuneko itxaropenei buruz**, besteak beste.

Azterlan luzean badira azpimarratzeko moduko datuak. Hasteko, gazte gehienak pozik daude beren egoerarekin; 10etik 7,8ko balorazioa egiten dute. Gehienek baikortasunez ikusten dute beren etorkizuna, % 80,3k uste baitu bere egoerak behar bezala eginen duela aurrera. Azken hori lotua dago datu honekin: ia hiru laurdenek uste dute beren egoera nabarmen hobetu dela azken bost urteetan.

Dokumentua hemen kontsulta dezakezu

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia**
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.6.3. Gazteen zaurgarritasunari buruzko jardunaldia

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Ikerketa Aurreraturako Institutuarekin (I-COMUNITAS) batera, Nafarroako Gazteriaren Institutuak lan-jardunaldi bat antolatu zuen Nafarroako Parlamentuan, "Gazteen zaurgarritasuna Nafarroan" gaiari buruz.

Jardunaldiak gazteengan jarri zuen fokua eta haiei eman zien protagonismoa. Hala, erakunde antolatuak ikerketak aurkeztu zituzten eta ikertzaile gazteek, berriz, beste lan osagarri batzuk aurkeztu zituzten, Nafarroan gazteek bizi dituzten errealitate desberdinei buruzkoak. Saioa elkarriketarako gune batekin amaitu zen. Gune horretan, gazte guztiek eztabaidatu eta proposamenak egin zituzten gaur egun gehien kezkatzen dituzten gaiei buruz.

Lan-jardunaldira bertaratutako ikasleak ikastetxe hauetatik etorri ziren: Tuterako ETI Ikastetxe Bateratu Politeknikoa, Lizarraldea BHI, Iruñeko "San Tomás" ikastetxea, Plaza de la Cruz BHI, Hezitzaile Eskola Ikastetxe Bateratua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Universidad de Navarra. Hainbat elkarte ere parte hartu zuten, hala nola Nafarroako Itxaropenaren Telefonoa, SEI elkarte, IHESaren Aurkako Nafarroako Herritarren Batzordea, bai eta Nafarroako Soziologia eta Politika Zientzietako profesionalen elkargoetako kideek eta Gizarte Laneko Elkargo Ofizialeko kideek ere, eta sindikatu etako gazteak ere han izan ziren.



1.6.4. . Gazteentzako Baliabideen Katalogoa

Gazteentzako Baliabideen Katalogoa gazteei eta gazteriaren arloan lan egiten duten profesionaleri zuzendua dago. Abuztuaren 12an argitaratu zen, Gazteriaren Nazioarteko Egunean, eta helburu nagusia du ezagutzera ematea Nafarroako Gobernuak zer zerbitzu eskaintzen dizkien gazteei.

Dokumentua aldi berean behin eguneratu eta zabalduko da, eta hamabi kategoria tematikotan egituratzen da: **asoziazionismoa; gizarte-inklusioa, bizikidetzeta eta parte-hartzea; boluntarioritza; hezkuntza formala; hezkuntza ez-formala; etxebizitza; osasuna; kultura; aisia eta kirola; mugikortasuna; ingurumena; eta, azkenik, berdintasuna, aniztasuna eta parte-hartzea.**

Hala, katalogoak biltzen ditu partzialki edo osotara gazteei zuzenduak dauden Nafarroako Gobernuaren zerbitzu guztiak; bat egiten du 2021-2023 aldirako Gazteriaren III. Foru Planaren helburuekin, eta haren ardatz tematikoen arabera egituratu da katalogoa ere. Modu horretan, katalogoak erantzuten die planean identifikatutako beharrei eta erronkei: erai-kuntza kolektiboa, gazteen emantzipazio-prozesua eta etorkizuneko balizko aukeretara bideratzea.

Dokumentua hemen kontsulta dezakezu

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia**
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.6.5. Gazteriari buruzko ikasketen amaierako lanentzako sariak

Gradu Amaierako Lanaren eta Master Amaierako Lanaren Sarien III. edizioak saritu ditu Nafarroako gazteek gazteriaren arloan egindako ikasketa amaierako lanik hoberenak. Helburua da gazteriari buruzko azterlanak eta ikerketak sustatzea, bai eta gazteriari eragiten dioten errealitateei buruzkoak ere, Humanitateen eta Gizarte Zientzien esparruan. Lanak ebaluatu zituen epaimahaia Nafarroako Gazteriaren Institutuko langileek osatu zuten. Kategoria bakoitzeko banatu ziren sari bat, 1.500 eurokoa, eta accesit bat, 500 eurokoa.

Saritutako lanak hauek izan ziren:

“Análisis de los alojamientos colaborativos como alternativa juvenil de vivienda en Navarra”, Guillermo Bergantiños San Martínena (NUP). Gradu Amaierako Lanaren saria.

“Suicidio y adolescentes. Proyecto de intervención en adolescentes tras conductas suicidas”, Edurne Sánchez Barásoainena (NUP). Gradu Amaierako Lanaren kategoriako accesita.

“Reproducción de la masculinidad en la adolescencia: un estudio del contenido que consumen en redes sociales”, Helena Aguirre Ericerena (EHU). Master Amaierako Lanaren saria.

“Estudio observacional de las conductas suicidas en la población joven de la Comunidad Foral de Navarra y su relación con las características sociodemográficas, el malestar emocional, la inteligencia emocional y las estrategias de afrontamiento”, Irati Irigoyen Iturriarena (Universidad Isabel I). Master Amaierako Lanaren kategoriako accesita.



1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak**
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.7.1. Kanpaldiak

Aire zabaleko gazteen jardueratzat hartzen dira hogeita hamar urtetik beherako gazteek noizean behin egiten dituztenak, hamar lagun edo gehiagoko taldean, gutxienez hiru gau jarraian igaroz instalazio mugikorretan, hala nola kanpaldiak, martxak, zeharkaldiak eta antzeko jarduerak, eta helburu dutenak prestakuntza, jolasa, ingurunea ezagutzea, naturarekin zuzeneko harremana izatea eta abar.

Abuztuaren 22ko 107/2005 Foru Dekretuak arautzen ditu jarduera horiek, eta Nafarroako Gazteriaren Institutuari dagokio administrazio-baimena ematea. Dekretuak honako hauek bereizten ditu:

- **Kanpaldia:** jarduera honetan gazteak aire zabalean egon ohi dira, lur-eremu mugatu batean, eta nagusiki kanpin-dendetan bizi dira, oinarrizko beharrei erantzuteko zerbitzuak lur-eremu horretan bertan dituztela.
- **Zeharkaldia:** tokiz toki egiten den kanpaldia, hau da, aurretik ezarritako ibilbide baten arabera gaua toki ezberdinetan igaroz.

2023ko udan, ezarri zen tenperaturen eta sute-arriskuaren arabera zer baldintza orokor bete behar diren



sua bizteko, erreketak egiteko, ibilgailuan ibiltzeko eta makinak erabiltzeko. Prebentzio-neurriak ezarri ziren jardueren prebentzio- eta larrialdi-planetan, eta kanpaldietan eduki beharreko ekipamenduari buruzko informazio-kanpaina bat egin zen. Aurreantzean, kanpaldi guztietan izanen dira sua jotzekoak, su-itxalgailuak, suaren aurkako mantak eta denek izanen dute sute-arriskua kontuan hartuko duen larrialdi-plan bat. Aurten, maiatzeko eurite handiek arindu egin zuten uztaileko eta abuztu-rako aurreikusitako arrisku-egoera.

2023an baimendutako eskabideen kopurua:

- Kanpaldiak: 30.
- Zeharkaldiak: 2.
- Baimenik behar ez zuten zeharkaldiak: 71 (larrialdi-protokoloagatik).

Jardueretan parte hartu dutenak:

	Gizonak	%	Emakumeak	%	Beste batzuk	%	GUZTIRA
Kanpaldiak	1.191	%48,34	1.270	%51,54	1	%0,04	2.464
Zeharkaldiak	247	%44,91	303	%55,09			550
GUZTIRA	1.438	%47,71	1.573	%52,19	1	%0,03	3.014

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak



- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak**
- 1.8. Gazte-aterpeak

Kanpaldiak non egin diren erreparatzen badugu, 30 kanpaldietatik 21 Erronkarin egin dira (Izaban eta Burgin); hau da, kanpaldi guztien % 70 han egin dira. Gainerakoak Arakilen (Izurdiagan eta Lakuntzan), Baztanen (Arizkunen), Azparrenen, Garaioan eta Beran egin dira.

Jardueretan parte hartzen duten gazteen jatorriari dagokionez: aurtan, gehienak izan dira Euskal Autonomia Erkidegokoak (% 45), Nafarroakoak (% 37) eta, neurri txikiagoan, Madril, Bartzelona, Alacant eta Murziakoak.

Gazteentzako jardueren kanpainaren hasierak Administrazioko hainbat departamentu koordinatzea dakar. Hori dela eta, aldez aurreko bilera bat egin zen, eta bertan parte hartu zuten Foruzaingoko, Babes Zibileko, Guardia Zibileko, Osasun Publikoko, Lehen Mailako Arretako eta Nafarroako Gazteriaren Institutuko kideek. Halaber, udako kanpainan zehar, Nafarroako Gazteriaren Institutuak guardiako teknikariak izaten ditu eguneko 24 orduetan, SOS Nafarroarekin harremanetan, haizeteen, ekaitzen edo tenperatura altuen aurrean egon daitezkeen alerta meteorologikoen berri emateko. Era berean, arreta

berezia eskaini zaie baso-suteen gaineko alertei. Horretarako, webgune bat prestatu da, non jasotzen baitira Nafarroako eguneroko alertak, aplikatu beharreko araudia eta ohiko galderen zerrenda.

Dokumentua hemen kontsulta dezakezu

Araudia eguneratzea

2023an, jendaurreko informazioaren tramitearekin, hasiera eman zaio gazteentzako aire zabaleko jarduerak arautzen dituen foru dekretua eguneratzeko prozedurari. Arau hori eguneratzearen asmoa da gazteentzako jarduerak egiteko gutxieneko baldintzak arautzea eta beharrezkoak diren betekizunak ezartzea, jarduera horiek parte-hartzaileen segurtasuna eta osasungarritasuna behar bezala zainduta egin daitezela sustatzea, eta, hala badagokio, natura-ingurunea behar bezala erabiltzen eta errespetatzen dela zaintzea.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak**
- 1.8. Gazte-aterpeak

1.7.2. Udako jarduerak

Aurten truke bat egin da udako kanpaldi batzuk euskaraz egiteko helburuarekin.

Jarduerak Donezteben egin ziren, dituen baliabide naturalak aprobetxatuz; jarduera espezializatuak egin ziren, hala nola piraguismoa, raftinga, mendi-ibiliak eta trekkinga. Jarduera horiek jolasa eta hezkuntza uztartzen dituzte, eta dibertsiorako eta bizikidetzarako espazio bat eskaintzea dute helburu, nerabeek gozatu ahal izateko eta, aldi berean, autonomia garatu ahal izateko. Jarduera horretan 14 eta 17 urte bitarteko 30 gaztek parte hartu zuten: 15 Arabakoak, 12 Gipuzkoakoak eta 3 Nafarroakoak. Horietatik 14 emakumezkoak ziren (% 46,66) eta 16 gizonezkoak (% 53,33).

Bestalde, Nafarroako gazteek ere parte hartu dute Gipuzkoan (surfa Zarautzen euskaraz) eta Araban (uretako jarduerak Zuhatza uhartean) egindako jardueretan. Guztira 33 nerabek parte hartu dute; horietatik 19 emakumezkoak ziren (% 57,57) eta 14 gizonezkoak (% 42,42).



1.7.3. Aisialdiari eta Denbora Libreari buruzko Kongresu Nazionala

2023ko urtarrilean, Asociación Nacional de Empresas de Actividades y Campamentos elkarteak Estatuan erreferentzia diren aisialdiko eta denbora libreko enpresen 100 ordezkari baino gehiago bildu zituen Madrilan, Aisialdiari eta Denbora Libreari buruzko I. Kongresu Nazionalan.

Estatu osoan haur eta gazteen aisialdian diharduten ehun bat erakundek parte hartu zuten, eta, horrez gain, hainbat autonomia-erkidegotako gazteria-zuzendaritza nagusiek ere parte hartu zuten, besteak beste, Nafarroakoak; hornitzaileen gune bat ere izan zen, eta hitzaldiak ere egin ziren. Topaketaren helburua izan zen azpimarratzea kanpaldiak haur eta gazteentzat aisialdirako aukera ona izan daitezkeela, kontuan hartuta gaur egun zenbateko indarra duen aisialdi digitalak eta zer arrisku dituen.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak**

Prezio publikoak

Nafarroako Gazteriaren Institutuaren Gobernu Kontseiluaren 2023ko martxoaren 24ko erabakiaren bidez, Institutuari atxikitako zentroak erabiltzeko gehieneko prezio eta tarifen eguneratzea eta haien araubidea onetsi zen 2023rako.

Institutuari atxikitako zentroak erabiltzeko gehieneko prezio eta tarifen araubidea



Gazte-aterpeak ez dira ostatu hartzeko bakarrik. Pertsonen topaleku izateko pentsatuak daude, eta kulturen eta esperientzien trukea ahalbidetzen duen bizikidetzagiroa sortzen dute.

Gaur egun, hiru dira Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikitako instalazioak: Doneztebeko Belbieretxea Gazte-aterpea, Getadarko Gazte-aterpea eta Lekarozko Baztan Gazte-aterpea. Instalazio horietan, azken urtean ere ahalegin handia egin dugu instalazioak segurtasun-, energia-eraginkortasun- eta jasangarritasun-irizpideen arabera egokitzeko.

Getadarko aterpea

Aurten itxia egon da, aterpea egokitzeko obretan aritu baitira. Aterpea elektrizitatez hornitzen duen instalazioa osatzen duten plakak eta bateriak berritu dituzte. Gas-instalazioa ere berritu da, zerbitzu hobea emateko eta egungo lege-eskakizunetara egokitzeko. Obra horiek zirela eta, erabiltzaileak arriskuan ez jartzeko, aterpearen jarduera aldi baterako bertan behera utzi zen, beharrezko lanak bukatzen ziren arte. 2023ko abenduaren 18tik martxan da berriz aterpea.

Doneztebeko Belbieretxea Gazte-aterpea

34 plaza ditu; gelek literak dituzte, eta osorik erre-serbatzen da.

Aurten aterperako sarbidea inguratzen duen zurzko hesi berria jarri da, lehengoa hondatua baitzegoen. Era berean, hezetasunaren arazoari aurre egiteko, trasdosatu bat jarri da isolamendu handiagoa lortzeko.

35 taldek hartu dute ostatu aterpean, eta guztira 848 pertsona eta 2526 ostatu-gau izan dira.

Lekarozko Baztan Gazte-aterpea

132 plaza ditu: 120 plaza 6 pertsonako logeletan eta 6 plaza gela bikoitzetan.

Plaka fotovoltaikoak jarri dira, ostatua elektrizitatez hornitzeko, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuarekin izandako lankidetzari esker. Aurten hainbat ekipamendu berritu dira: ohatzeak, mahaiak, sukalderako izozkailua eta abar. Atletismo-pista egokitzeko eta igerileku zaharra kentzeko lanak ere egin dira.

108 taldek hartu dute ostatu aterpetxean (4998 pertsona denera) eta banakako 397 aterpekidek ere bai. Ostatu-gauak, guztira, 16.169 izan dira.

1 Gazteriaren arloko politika espezifikoak

- 1.1. Gazteentzako Informazio Sarea
- 1.2. Hezkuntza ez-formala
- 1.3. Gazte Txartela
- 1.4. Gazteentzako programak eta jarduerak sustatzea
- 1.5. Gazteria Sariak
- 1.6. Gazteriaren Behatokia
- 1.7. Aire zabaleko jarduerak
- 1.8. Gazte-aterpeak**

Gazte-aterpeen Espainiako sarea

Gazte-aterpeen Espainiako Sareko (REAJ) kide da Nafarroa, eta, horregatik, Nafarroako Gobernuaren instalazioez gain, Nafarroako aterpe hauek daude sarean: Ailanto aterpea, Legarian; Larraona aterpea, Iruñean; Atarrabiako aterpea; Los Abedules aterpea, Iruñean; Eulateko aterpea eta Ronces aterpea, Iruñean. Baztan aterpea ere sare horretan dago.

Baina ez hori bakarrik: REAJekin lotuta, 300 aterpe baino gehiago daude Espainia osoan, kalitatezko ostatu-aukera zabala eskaintzen dutenak prezio eskuragarrietan. Gainera, Hostelling Internationala-

len bidez, 4.000 aterpe baino gehiago daude mundu osoko 90 herrialdetan banatuak.

Aterpekide-txartela behar da Gazte-aterpeen Espainiako Sareko aterpeetarako sartzeko, eta bestelako deskontu ugari ere baditu gainera; Nafarroako Gazteriaren Institutuan ematen da. 2023an 298 aterpekide-txartel eman ziren, honako modalitate hauetan banatuta: 17 helduen modalitatean, 2.013 gazteen modalitatean eta 4 familien modalitatean; eta 64 talde-txartel eman zitzaizkien gazte-elkar-teei, doan.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

2.1. Osasuna

2.2. Berdintasuna

2.3. Hezkuntza

2.4. Enplegua

2.5. Ekintzailtza

2.6. Etxebizitza

2.7. Mugikortasuna

2.8. Bizikidetza

2.9. Landa-ingurunea

2.10. Kultura

2.11. Teknologia berriak

2.12. Parte-hartzea

2.13. Boluntariotza

2.14. Nazioartean parte-hartzea

2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk

2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua




2.1.1. Tok Tok, Ongizate Emozionalerako Aholkularitza

Nafarroako Gazteriaren Institutuak ongizate emozionalerako aholkularitza bat jarri du abian gazteentzat, laguntza eta arreta psikosozialeko sare bat izan dezaten eskura; aholkularitzak modu individualizatuan erantzunen die osasun mentalaren arloan dituzten premiei. Gazteek eskatua dute arlo horretan laguntza jasotzeko baliabide espezifikoak eta eskuragarriak behar dituztela; horregatik, aholkularitzaren helburua da eskaera horri erantzutea. Interesdunek beren egoeraren berri eman dezakete Institutuaren web-orriko "Ongizate emozionala" atalean prestatu den kontsulten txokoan. Bertan, labur adieraz dezakete zein den beren egoera, beharrezko datu batzuekin batera (adina, harremanetarako telefonoa eta abar).

Gainera, ekimenak agerian jarri nahi du zeinen garrantzitsua den osasun emozionala gazteentzat, eta indarra kendu nahi die gai horren gaineko tabuei eta estereotipoei; aholkularitzari esker, une emozional txar bat igarotzen ari diren gazteek entzuten dituen norbait izanen dute. Ildo horretan, aholkularitzaren osagarri, "TOK TOK ongizaterako pilulak" ekintza egiten da; gazteek gazteentzat egina da. Asmoa da gaia naturaltasunez lantzea, gazteen informazio- eta entretenimendu-kanalen bidez haiengana iristeko as-

15. artikulua. Gazteak eta osasuna.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ingurune eta bizitzeko ohitura osasuntsuak sustatuko ditu, prebentzio neurriak ezarriz eta osasuna sustatzeko jarduketak eginez.



moz. Izatez, ikus-entzunezko eduki dinamikoak dira, gazteek eginak eta YouTube, Instagram eta Tik Tok bidez 2023. urte osoan zabalduak.

Ikus-entzunezko materialaren bidez, hainbat gai jorratzen dira; zenbait arlotako adituek (psikologia, medikuntza, gizarte-bitartekaritza eta abar) gazteen ongizate emozionalarekin lotutako edukiak aurkezten dituzte, aholkularitza gisa, umoretik eta iritzitik abiatuta. Hamabi gai landu dira, nerabeek izaten dituzten dilemak aurkezteko: identitatea nerabezaroan, errespetuzko maitasuna, desamodioa, sare sozialak eta mendekotasuna, loturak eta atxikimenduak, dolua, errua, inbidia eta jeloskortasuna, antsietatea, lotsa, beldurra, tristura eta frustrazioa.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

2.1. Osasuna

2.2. Berdintasuna

2.3. Hezkuntza

2.4. Enplegua

2.5. Ekintzailtza

2.6. Etxebizitza

2.7. Mugikortasuna

2.8. Bizikidetzatza

2.9. Landa-ingurunea

2.10. Kultura

2.11. Teknologia berriak

2.12. Parte-hartzea

2.13. Boluntarioritza

2.14. Nazioartean parte-hartzea

2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk

2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua




2.1.2. Osasun mentalerako prestakuntza

Nerabegaroko osasun mentalaren gaineko prestakuntza jaso dute gazteekin lan egiten duten ehundik gora profesionalak, Nafarroako Gazteria Institutuaren bidez, tresnak izan ditzaten osasun mentalaren arloan arazoak antzemateko eta esku hartzeko, eta gazteen artean ongizate emozionala sustatzeko.

Hainbat saio izan ditu "Osasun mentala eta nerabeak" ikastaroak; helburua da gazteen osasun mentalari lotutako arriskuak prebenitzea, aintzat hartuta zein den gaur egungo egoera. Pandemiaren ondorioz gazteen artean ezongi emozionala areagotu dela antzeman ondoren, prestakuntzak bilatzen du gazteekin lan egiten dutenak osasun mentalaren esparrura hurbiltzea, bai eta banakako, taldeko eta komunitateko arazoak antzemateko eta horietan esku hartzeko tresnak ematea ere, eta ongizate emozionala prebenitzeko eta sustatzeko jarraibideak ematea ere bai.

Ikastaroa zuzendua dago hainbat eremutan gazteekin zuzenean lan egiten dutenei (gazte-infor-



mazioa, gazteria-teknikariak, gizarte-hezkuntza, irakaskuntza, gizarte-lana, orientazioa, animazio soziokulturala, etab.), nerabeen eskariari erantzuteko. Prestakuntzak nerabegaroen garapenari buruzko ezagutzak ematen dizkie gazteekin lan egiten duten profesionalari, eta adin horretan nagusitzen diren zailtasun emozionalak eta mentalak ulertzen laguntzen du. Besteak beste, bizitzako etapa horretan gertatzen diren aldaketa fisiko, psikologiko eta sozialak lantzen dira, eta jorratzen da zein diren jokabide osasungarriak eta zein arriskuak gazteen osasun mentalerako. Era berean, nerabeekin harremana indartzeko tresnen berri ematen du, eta arriskuak detektatzeko eta esku hartzeko taktikak erakusten ditu, arrisku-faktoreak eta balizko desoreka emozionalen seinaleak identifikatzeko. Era berean, egoera bakoitzaren neurriko jarduketak egitea bultzatu nahi du, arazo psikologikoei lotutako estigma murriztea, eta gazteen osasun mentala, laguntza eta babesa sustatuko duten sare komunitarioak eraikitzeko estrategiak ematea.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

2.1. Osasuna

2.2. Berdintasuna

2.3. Hezkuntza

2.4. Enplegua

2.5. Ekintzailtza

2.6. Etxebizitza

2.7. Mugikortasuna

2.8. Bizikidetzak

2.9. Landa-ingurunea

2.10. Kultura

2.11. Teknologia berriak

2.12. Parte-hartzea

2.13. Boluntariotza

2.14. Nazioartean parte-hartzea

2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk

2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.1.3. Curiosexando

Curiosexando: acompañando en la educación sexual proiektuaren asmoa da sexualitateak eta erotikak Nafarroako bigarren hezkuntzako ikastetxetara eramatea. Prestakuntza horren asmoa da ez bakarrik gure erotikarekin egiten dugunaz mintzatzea, baizik gu garen sexuaz solastea, alegia, nola sentitzen dugun eta nola partekatzen dugun sexua. **2023ko irailetik abendura bitartean, sexu-hezkuntzako saioak egin ziren Lekaroz, Elizondo, Barañain, Atarrabia, Lizarra, Altsasu eta Iruñeko 7 ikastetxetan. Guztira, 1.113 nerabe bildu ziren, 571 neska eta 542 mutil.**

Hitz egin da harremanez, afektuez eta mugez, bai eta sexualitatearen eta erotikaren gainean dugun begiradaz ere, hezkuntza nondik abiatzen dugun kokatzeko. Sexologiaren ikuspuntutik, sexu-hezkuntzako hitz egitea da, funtsean, gizakiaren sexuaz hitz egitea, sexudunak diren neskez eta mutilez, gizon eta emakumez solastea, denok izaki sexudun garen aldetik gutako bakoitzak gure burua sentitzeko eta sexua bizitzeko dugun modutik adierazten eta erlacionatzen baikara. Horregatik, sexu-hezkuntzaz proiektu horren helburua da gazteei beren burua ezagutzen eta onartzen laguntzea, bai eta beren erotika adierazten ere, zoriotsu senti daitezen. Hori guztia sustapena landuz, horretan jarririk fokua, eta ez hainbeste prebentzioan.

2.1.4. Esku-hartze artistikoa ospitaleetan

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin lankidetzan, 6.200 euro bideratu ziren Esku-hartze artistikoa ospitaleetan programaren seigarren ediziorako.

18 eta 30 urte bitarteko artistei zuzendutako deialdia da, eta helburua da beren lanak osasun-zentroetan (ospitaleetan, batez ere) erakustea, espazio horiek goxagoak izan daitezen, eta arteaz goza dezaten osasun-espazioen erabiltzaileek: profesionalak, pazienteek, senideek eta lagunek. Proiektu artistikoaren helburua da emozioen kudeaketa erraztea, gatazketan bitartekari izatea eta baretasuna sortzea karga emozionaleko egoeretan, ospitaleetan harelakoak gertatzen baitira.

Edizio honetan, denera, 4 proiektu aurkeztu ziren, eta Diego Blanco Prietoren Atsedendia lana hautatu zuen epaimahaiak Tuterako Reina Sofia ospitalean jartzeko; zehazki, osasun mentalaren pabilioiko atsedendipatioan. Artistak islatu nahi izan zituen atsedendihartzea, nork bere burua zaintzea eta pertsonak beren bizitzan geldialdi bat egiteko duten eskubidea. Horma-irudi piktoriko bat da, koloretsua, eta bertan siluetak ageri dira, bata besteari eusten, eta elkarri adorea eta laguntza ematen.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

2.1. Osasuna

- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.1.5. Gazteen Osasun Mahaia

2021ean jarri zen abian Nafarroako Gazteriaren Institutuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) batera gauzatutako ekimen hori.

Plataforma horrek biltzen ditu gazteen osasun-baldintzen hobekuntzan diharduten hainbat entitate eta erakundetako gazteak. Mahaiaren xedea da elkarrizketa, hausnarketa partekatua eta eztabaida sustatzea, gazteen osasun-arloko ohi-iturei eta premiei buruz. Asmoa da osasunaren arloko lankidetzatza eta ekintzatza bateratua bultzatzea eta babestea, gazteak, osasuna eta haien sustapena lan-helburutzat dituzten erakunde eta elkarten artean. 2023an, **ongizate emozionala** landu da nagusiki, 2022an egin-dako lanari jarraipena emanez.

2023an, denera, 4 bilera egin dira, eta, horietan, 18 eta 28 urte bitarteko 14 gazte parte hartu dute. Erakunde hauek ordezkatu dituzte: Sare, Hiesaren aurkako

MESA JOVEN DE SALUD



Batzordea, Haziak, Afadena, Gazteriaren Kontseilua eta *Secretariado Gitano* fundazioa.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. berdintasuna**
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailletza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.2.1. Nafarroako gazteen genero-arrakala nagusiei buruzko txostena


Nafarroako Gazteriaren Institutuak egina, genero-ikuspegitik aztertutako adierazleak biltzen ditu, Nafarroako gazteen artean dauden arrakala nagusiak identifikatzeko. Gai hori aztertzea erabakigarria da gazteei zuzendutako politika publikoak betetan gauzatu ahal izateko.

Txosten horrek aukera ematen du emakumeen diskriminazioa, desberdinkeria eta bazterkeria identifikatu, zalantzan jarri eta baloratzeko, eta, era berean, aukera ematen du generoagatiko diskriminazio-faktoreetan eragina duten ekintzak ezartzeko, eta genero-berdintasunaren eraikuntzan aurrera egiten lagunduko duten aldaketa-baldintzak sortzeko. Gazteak, haurrekin batera, oinarrizkoak dira etorkizunean gizartea berdinzalea eta indarkeria matxistarik gabekoa izan dadin. Era berean, gazteak eta nerabeak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean bereziki kalteberak diren bi kolektibo dira, eta hori da gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeria adierazpen basati eta muturrekoena gizarte batean.

22 adierazle aztertzen ditu, besteak beste, lan erreproduktiboetan emandako denbora, kontratuen behin-behinekotasuna eta genero-indarkeriaren intzidentzia adinaren arabera. Txostena egiteko, Na-

18. artikulua. Gazteak eta pertsonen arteko harremanak. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, departamentu eskudunen bidez, zenbait ekintza sustatuko ditu, gazteen harreman pertsonalak, familiarrak, harreman sozialak eta belaunaldien artekoak berdintasunean, errespetuan eta solidaritatean oinarritu daitezzen faboratzeko.

farroako gazteen artean dauden arrakala nagusien berri ematen diguten adierazleak bildu ziren. Iturri propioak kontsultatu dira, hala nola Adierazleen Panela eta Nafarroako gazteen 2022ko inkesta, bai eta bigarren mailako iturriak ere: Estatistikako Institutu Nazionala; Nafarroako emakumeen aurkako indarkeriagatiko polizia-salaketen urteko txostena (NABI); eta Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean Nafarroan koordinatzeko erakunde arteko III. akordioaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko urteko txostena.



Dokumentua hemen kontsulta dezakezu

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

2.1. Osasuna

2.2. Berdintasuna

2.3. Hezkuntza

2.4. Enplegua

2.5. Ekintzailtza

2.6. Etxebizitza

2.7. Mugikortasuna

2.8. Bizikidetzatza

2.9. Landa-ingurunea

2.10. Kultura

2.11. Teknologia berriak

2.12. Parte-hartzea

2.13. Boluntariotza

2.14. Nazioartean parte-hartzea

2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk

2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua




2.2.2. Iguala

Iguala programa indarkeria sexista prebenitzeko ekimen bat da, 30 urtetik beherako gazteei zuzendua. 2020an jarri zen abian, NABIk bultzatuta, Institutuarekin lankidetzan. Programaren helburua da tresnak eta baliabideak ematea nerabe eta gazteei, testuinguru desberdinetan emakumeen aurkako edozein indarkeria-mota identifika dezaten eta, aldi berean, bitartekaritza- eta laguntza-trebetasunak gara ditzaten.

Lankidetzatza-metodologia oinarri hartuta, programaren asmoa da gazteek eta nerabeek euren hezkuntzan duten protagonismoa eta parte-hartzea areagotzea, eta berdintasunari buruzko eztabaida hainbat eremutara zabaltzea: talde ezberdinetako nerabeen artean, nerabeen eta helduen artean, eskolaren eta familiaren artean, bi instituzioen eta udal-taldean artean, eta gazte-mugimenduarekin ere bai. Ekimen honekin, gazte-taldeak prestatzen dira, bizi diren ingurunean eragile sentsibilizatzaile bihurtu daitezten.

Orain arte, programa hau Tafallan (bi edizio), Santakaran, Uhartan eta Corellan garatu da. 2023an ekimenarekin bat egin duen azken herria izan da Corella, eta bertan 14 eta 28 urte arteko 8 neska eta 5



mutileko talde batek parte hartu du. Laugarren edizio bat egin da "Berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistaren aurkako belaunaldi bat" lelopean. Urriaren 13tik 15era bitartean egin da, Lekarozko gazte-aterpean lo eginez, Nafarroako Gazteriaren Institutuak lagata.


Bertan, ikus-entzunezko produktu artistiko bat sortzeari ekin zioten, NABIk lau urtez arlo horretan egindako lana laburbiltzeko. Gazteek profesional espezializatuen laguntza izan zuten horretarako. Hala, taldeak gidoia diseinatu eta egin zuen, eta 8 "zizka-mizka" audiobisualen (bideo laburrak) protagonista izan zen, gerora bideo horiek sare sozialetan zabaltzeko asmoarekin. Nafarroako gazteei zuzendutako lanak dira, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta beren ingurunean jarrera-aldaketan sustatzaile izan daitezten

2.2.3. Gerundio lantegia

Gazteentzako lantegiak egiteko programa bat da, antzerkiaren bidez indarkeria matxistak hauteman eta prebenitzeko. Institutuak Pamela Palencianok emandako lantegi horietako bat sustatu zuen; irailaren 10ean egin zen Nafarroako Antzerki Eskolan.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza**
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.3.1. Ikaskuntza eta zerbitzua

Ikaskuntzak eta zerbitzuak uztartzen ditu, proiektuen bidez, ikasleen hezkuntza-prozesua eta komunitatearen onerako izanen den lana. Ekimen horietan, parte-hartzaileek ikasi egiten dute beren inguruneke benetako premietan lan egiten duten bitartean, ingurune hori eraldatzeko helburuarekin.

Proposamen pedagogiko hori hezkuntza ez-formalaren eremuan ere aplikatzen da, eta bere bertuteen artean dago ikasleak gizartearekin konprometitutako herritarren balioetan prestatzea; horretarako, gazteek beren ingurunean parte har dezaten eta inplika daitezten bultzatzen du eta irakaskuntza-prozesuen zentzua eremu komunitariora zabaltzen du, balio solidarioak emateko eta gizartearen eta ingurumenaren hobekuntzan erantzukizuna hartzeko. Gainera, ikusi da metodologia hori Nafarroako elkarte-sarearen indartzaile eta dinamizatzaile eraginkorra dela, eta, aldi berean, eskola-porrotaren eta -absentismoaren aurkako borrokan eraginkorra dela.

Ikaskuntza eta Zerbitzu Proiektuak Diseinatzeko Nafarroako I. Lehiaketan, zortzi hezkuntza-proposamen saritu dituzte Nafarroako Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioaren Sareak eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak; izan ere, proposamen horiek uztartzen dituzte ikaskuntza eta gazteek gizarteari zerbitzua

19. artikulua. Gazteak eta hezkuntza.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa hezkuntza sistemaren kalitateaz eta ekitateaz arduratuko da, eta gazte nafarren garapen pertsonal eta profesionala bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.




ematea. 1.000 euro arteko sariak eman dira, eta helburua da Nafarroako ikastetxeek eta gazteekin edo elkarteekin lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek sustatutako ekimen horiek bultzatzea, baldin ekimen horiek badira Haur Hezkuntzarako, Lehen Hezkuntzarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, Batxilergorako edo Lanbide Heziketarako.

Lehiaketara 33 proiektu aurkeztu, eta 8 hezkuntza-proposamen saritu ziren. Proiektu horiek ikaskuntza eta komunitateari eskainitako zerbitzua uztartu zituzten, eta 2.144 ikasleren parte-hartzea izan zuten. Zehazki, honako hauen proiektuak saritu ziren: Ermitagaña ikastetxe publikoa, Iruñekoa; *Santa Maria la Real* ikastetxea, Eguesibarkoa; *La Compañía Escolapios* ikastetxea, Iruñekoa; San Adriánego Ega BHI; Irunberriko Lanbide Heziketako IBP; Samay Elkarte; eta Monteagudoko *Santa María Magdalena* guraso-elkartea.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza**
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarreak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.3.2. RaPoesia

Proiektu hori sartua dago Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetan metodologia aktiboen garapena sustatzeko bultzatzen dituen programetan.

Gaur egungo ikasleek poesia gutxiago irakurtzen dute, baina kontsumitzen dute, beste arte-adierazpen batzuen bidez. Horri erantzunez sortu zen RaPoesia, rapa eta poesia lotzen dituen hezkuntza-proiektua. Bigarren hezkuntzako zenbait ikastetxek ezarri zuten, eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak ere bat egin du hirugarren urtez. Hala, kaleko artea ikasgelan sartzeko da, eta ikasleak gizartearengandik ikastera ateratzen dira.

Programaren helburua da hizkuntza eta literatura ikasleen eguneroko bizitzara hurbiltzea; horretarako, rapa erabiltzen du, bai eta soinua eta bideoa norberak ekoizteko metodoak ere. Horrela, ikaskuntza, izan formala nahiz ez-formala, ulertzeko mo-



duak berrosatzen dira nolabait, testuinguru berriak eskainiz. Bertako hainbat talde eta rap-kantariaren laguntza izan genuen, eta ikasleekin lantegietan aritu zuten, beren esperientzia partekatuz. Azken lanek beren nahiak eta kontzientziak astintzen dituzten gaiak landu zituzten, hala nola gerrak, errefuxiatuak, drogen kontsumoa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna...

Hala, jarduketara-esparru horren barrenean, azken emaitza *Certamen Literario de Rap Juvenil* lehiaketa izan zen. Iruñeko Musikaren Hiria auditoriumean egin zen, martxoaren 23an, eta DBH eta LHko 350 ikasleek parte hartu zuten. Edizio horretan parte hartu zuten ikastetxeak honako hauek izan ziren: Iparalde DBH, Uharte BHI, Sarriguren BHI, Donapea IBP, Larraintzar DBH eta Martzillako *Marqués de Villena* BHI.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua**
- 2.5. Ekintzailertza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.4.1. Reconoce sarea

Nafarroako Gazteriaren Institutuak adierazi du Reconoce sarea babesten duela. Sare horrek gazteek boluntariotzaren bidez eskuratzen dituzten trebetasunak eta gaitasunak egiaztatze lan egiten du; aldi berean, enpresa-sarea eta gizartea, oro har, boluntariotzaren bidez eskuratutako trebetasun eta gaitasun horiek baloratzearen garrantzia sentsibilizatzen ditu.

Gazte askok boluntariotza-ekintzetan parte hartzen dute, eta beren denbora eta ahalegina denon onerako diren proiektuetan lan egitera bideratzen dute, hala nola natura babesteko jarduerak, kultura-ekimenak edo parte-hartze sozialeko ekimenak. Inplikazio horri esker, zeharkako hainbat trebetasun eskuratzen dituzte, soft skills izenez ezagutzen direnak. Horiek ez daude inolako lanbide zehatzi lotuak; aitzitik, baliagarriak dira bai norberarentzat bai lan-mundurako.

Horregatik, boluntariotzako eta partaidetzako esperientzien, aktibismoaren eta horien onuren garrantzia ikusarazteko, Reconoce sareak gaitasun horiek egiaztatu eta aitortu nahi ditu, irizpide komun batzuetan oinarrituta. Horrela, ikaskuntza informalak eta hezkuntza ez-formala balioztatzen nahi ditu, aberastasun erantsia ematen baitiote edozein pertso-

20. artikulua. Gazteak eta enplegua.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteen enplegua lehentasunezko zatik joko du gazteriaren arloan, eta helburu orokor hauek lortzera bideratuko du bere jarduna:

- a) Gazteen enplegua sortu eta mantentzea, eta enplegu horren kalitatea hobetzea; halaber, gazteek eraturako enpresen sorrera sustatzea.
- b) Gazteen gaikuntza lan merkatuaren beharretara egokitzea eta prestakuntza bizi osoan izateak duen garrantziari buruz sentsibilizatzea.
- c) Hezkuntza sistematik lan merkatura edo langabeziatik lanera pasatzeko bidea erraztea.



naren ibilbideari eta gaikuntzari, baina bereziki gazteei.

Gazteen enplegarritasuna bultzatze aldera, Nafarroan gazteekin lan egiten duten 12 entitatek Reconoce sareak emandako prestakuntza jaso dute; helburua da gaikuntza ematea boluntariotza-espereintzietan eskuratzen diren gaitasunak aitortzeko eta egiaztatzeko.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua**
- 2.5. Ekintzailertza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.4.2. Prestakuntza-saioen zikloa

Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskolak (Nafarroako Gazteriaren Institutuarena da) toki-entitateekin elkarlanean aritzeko duen estrategiaren barrenean, enplegurako prestakuntza-saioen ziklo bat egin zuen Tuteran, 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat; ziklo horrek osatu egin zuen Tuterako Udalak gazteek enplegua bilatzeko abian jarritako orientazio-zerbitzua.

Gazteak prestakuntza- eta lan-munduan orientatzeko, integratzeko eta laguntzeko helburuarekin, haien enplegarritasuna baloratuz eta beharrezko prestakuntza emanez, Ilundáin fundazioak hileroko saioak egin zituen Lestonnac gaztediaren etxean. Saio horietan honako gai hauek jorratu ziren: motibazioa eta autoestimua, talde-lana, estresaren kudeaketa, lan-elkarrizketak, denboraren kudeaketa, lana bilatzeko iturriak, curriculum eta aurkezpen-gutuna, talde-dinamikak eta test psikoteknikoak.


2.4.3. Enplegu-azokak

Halaber, **enpleguaren arloan, Nafarroako Gazteriaren Institutuak Navarra Jobs eta Ribera Talent ekitaldietan parte hartu zuen 2023an**; Nafarroan lan-aukerak bilatzen ari direnei edo negozio bati ekin nahi diotenei laguntzeko gizarte-izaerako ekitaldiak dira. Ekitaldi horietan biltzen dira benetako lan-eskaintzak dituzten enpresak, enplegu-bilaketa aktiboan kualifikatutako hautagaiak eta ekintzaile potentzialak.

Gainera, **aurten, ikaslearen eta enpleguaren artoa berreskuratu denez, Institutuak stand bat izan zuen azoka horretan**, non erakusten baita dagoen hezkuntza-eskaintza, barne direla lanbide-heziketa eta unibertsitate-ikasketak. Lan-aukerak ere eskaintzen ditu, ekintzailertza enplegurako zuzeneko bidetzat hartuta, eta lan-etorkizuna planifikatzeko orientazioa ematen die ikasleei, familiei, profesionali eta ikastetxeei.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza**
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.5.1. Ekonomia soziala

Nafarroako Gazteriaren Institutuak eta Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkarteak (ANEL) protokolo bat sinatu dute ekonomia sozialaren arloko ekintzailtza sustatzeko gazteen artean; horretarako, ekintzailtza kooperatiboa eta ekonomia sozialaren arloko ekintzailtza bultzatzeko eta horien gaineko sentsibilizazioa lantzeko jarduketak eta proiektuak egingen dira.

Bi erakundeek sinatutako protokoloaren helburua da ekonomia sozialaren balioak sustatzea gazteen artean, bai eta ekintzailtza ere, lan-irtenbide egokia izan baitaiteke gazteen artean oso errotuak dauden printzipioak biltzen dituen egitura ekonomiko batean aritzea, printzipio horiek izanik ekitatea, emakumeen eta gizonen berdintasuna, ingurumenaren jasangarritasuna, elkartasuna eta lankidetzatza, besteak beste.

Protokolo horren testuinguruan, ekimen berri bat jarri zen abian: escape room baten diseinua, helburua izanik ekonomia soziala gazteei hurbiltzea tresna erakargarri eta berritzaile baten bidez. Escape room ibiltari hori Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasleei, unibertsitateko ikasleei eta, oro har, ekintzailtza-gaietan nolabaiteko kezka duten gazteei



21. artikulua. Gazteak eta ekimenaren aldeko jarrera.


1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak talentuaren, sormenerako gaitasunen eta ekimenerako pentsamoldearen garapena sustatuko ditu gazte nafarren artean, bai eta ikerketa, garapena eta berrikuntza ere.



zuzendua dago. **Helburua da ikasleei ezagutaraztea zer den ekonomia soziala, zer esan nahi duen eta zer printzipiotan oinarritzen den, bai eta ekintzailtzaizateko interesa piztea ere.** Escape room hori diseinatu eta garatzeko, Learn & Teach gazte-elkartearen laguntza izan genuen, bermatu nahi baikenuen tresna horrek gazteen gustu eta kezkei erantzuten ziela.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza**
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.6.1. Erriberagoienako Gazte Foroa

Begoña Alfarok, hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak, Erriberagoienako I. Gazte Foroan parte hartu zuen. Foro hori Faltzesko Udalak antolatua zuen eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak diruz lagundu zuen. Bertan, landa-ingurunean etxebizitza eskuragarria sustatzeko beharra azpimarratu zen.

Erriberagoienako I. Gazte Foroaren helburua **izan da eskualdeko agintari eta gazteen arteko topagune bat sortzea, gai zehatzei buruz eztabaidatzeko eta zalantzak argitzeko.** Oraingoan, gai nagusiak izan dira neguan zer jarduera antolatu gazteentzat, eta eskualdeko herrietan etxebizitza eskuratzeko zer zailtasun dauden.



23. artikulua. Gazteak eta etxebizitza.


Nafarroako administrazio publikoek gazteek etxebizitza (edozein modalitatetan) lortzera bideratutako ekintzak bultzatuko dituzte, haien beharrak eta ahalmen ekonomikoak kontuan hartuta.

Lehenbizi taldeka eztabaidatu zen eta ondoren denek batera, talde handian, komentatu zituzten jorratutako gaiak; ikusi zen gazteek gaur egun duten arazo handienetako bat etxebizitza eskuratzeko dela, eta egoera hori larriagotu egiten dela landa-ingurunean, herri handietan baino etxebizitza gutxiago eskaintzen baitira arazoizko prezioan. Ildo horretan, arazo hori konpontzeko abian jarriko diren proiektuak helarazi zitzaizkion foroari, bai eta gazteentzako aukerak zabaltzeko konpromisoa ere, beren eskualdean etxebizitza bat arazoizko prezioan eskura dezaten, dela alokairuaren bidez, dela erosketaren bidez.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza**
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarrekin eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.6.2. Emanzipa

Emanzipa da gazteentzako laguntza ekonomiko bat, emantzipatzea lor dezaten edo emantzipatuta jarrai dezaten. Laguntza horren zenbatekoa aldatu egiten da etxebizitzaren alokairuaren prezioaren eta pertsona bakoitzaren errentaren arabera, baina kasu guztietan alokairu-errentaren % 50 jasotzea bermatzen du; ordainketa hileroko egiten da, eta hileroko gehienez ere 280 € ematen dira.

2023an, errekor historikoa lortu dugu Emanzipak emandako laguntzen kopuruan: 6 milioi euro baino gehiago bideratu dira horretara, aurreko urtean baino % 10 gehiago, eta Nafarroako 3.084 gazte izan dira onuradun. Prestazioaren onuradunen profilaren arabera, laguntzen % 61 emakumeentzat izan dira (ba-

tez beste 28 urte), eta % 39 gizonentzat (batez beste 28 urte). Emakumeek urtean batez beste 13.000 euro baino gehixegoko diru-sarrerak zituzten, eta gizonen urteko soldata, berriz, 14.000 eurokoa zen. 2024rako, aldaketak egin dira herritar gehiagorengana iristeko: laguntza eskatzeko baimendutako gehieneko adina urtebete handitu da, 33 urtera arte, eta etxebizitza bat alokatzeagatik ordainketa-prezioa 700 eurora arte igo da, kontuan hartuta zenbat igo diren prezioak merkatu pribatuan. 2024rako, laguntza hileroko 280 euro artekoa da eskatzaile bakoitzeko (orain arte 250 euro artekoa zen). Gainera, errentaren muga 22.000 eurora igo da bakarrik bizi direnentzat eta 33.000 eurora familia-unitateentzat; lehen, muga 20.000 eta 30.000 eurokoa zen, hurrenez hurren.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna**
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.7.1. Erasmus + Gazteria

Erasmus+ da Europar Batasunak hezkuntzaren, prestakuntzaren, gazteriaren eta kirolaren arloan duen programa, eta gazteei laguntza ematen die hezkuntza ez-formalaren bidez garapen pertsonal eta profesionalerako funtsezko trebetasunak eskuratzeko.

Programa hau hiru ekintzatan egituratzen da:

Funtsezko 1. ekintza. Pertsonen hezkuntza-arloko mugikortasuna.

- Gazteen arteko trukeak
- Gazteriaren arloko teknikarientzako mugikortasun-proiektuak
- Gazteek parte hartzeko jarduerak.

Funtsezko 2. ekintza. Erakunde eta instituzioen arteko lankidetzatza

Funtsezko 3. ekintza. Politiken garapena eta lankidetzatza babestea

Nafarroan 2023an garatutako proiektuek funtsezko 1. ekintzaren esparruarekin dute zerikusia.

Alde batetik, gazteen arteko trukeak. Proiektu horiek gazteen parte-hartze aktiboa eskatzen dute, eta gizarte- eta kultura-errealitate desberdinak daudela jakiteko eta horretaz kontzientziatzeko diseinatu daude. Aukera ematen diete atzerrira joateko,

24. artikulua. Gazteak, mugikortasuna eta nazioartekotzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gazteak prestatu eta sentsibilizatuko ditu, ingurune orokor batean garapen pertsonal eta profesionalerako aukerak aprobetxatzeko gai izan daitezten.



beste herrialde batzuetako gazteak ezagutzeko eta elkarrengandik ikasteko, denentzat interesgarriak izan daitezkeen baterako jardueretan parte hartuz. Proiektua amaitutakoan, Europako Youthpass ziurtagiria jasotzen dute; ziurtagiri horrek hezkuntza ez-formalaren eremuan garatutako gaitasunak jasotzen ditu. Finantzaketak ostatatzearen, mantenuaren eta programaren zati bat estaltzen du, bai eta atzerriko taldeak Nafarroara egiten duen bidaiaren zati bat ere.

Aurten proiektu hauek egin dira:

- **“Leonardino” hezitzaileen elkarteak.** Gazteen truke-rako proiektu bat garatu zuen; horren barrenean, Eslovakiako gazte batzuk ekarri zituen zenbait egunetarako, gure gizartean talde jakin batzuek pairatzen duten diskriminazioaren gainean kontzientziatzeko, hala nola etxerik gabeko pertsonak, txiroak edo etorkinak. Trukaketan 25 gaztek hartu zuten parte, urriaren 27tik azaroaren 5era bitarte; 16.131 euroko finantzaketa izan zuen.
- **Talasa gazte-elkarteak.** Proiektuak lau herrialdeetako 30 gazte bildu zituen; zehazki, Espainia, Italia, Portugal eta Frantziakoak, herritartasun aktiboa sustatzeko eta gizarte jasangarriagoa eta ingurumenarekiko kontzientziatuagoa sortzeko. 20.605 euroko finantzaketa jaso zuen Europatik.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna**
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



- **Lantxotegi Elkartea.** Nafarroako eta Alemaniako 20 gazteren arteko astebeteko topaketa izan zen, "Gazte migratuen partaidetza komunitarioa" gaitzat hartuta. 12.872 euroko dirulaguntza izan zuen.
- **Iruñeko Udala.** "Nature connection 1" izeneko topaketa bat bultzatu zuen Pays de Nay eta Nafarroako gazteen artean. Donejakue bideko hainbat etapa egin zituzten, bertako historiaren, ingurumenaren eta geografiaren berezitasunak ezagutzeko. 15 eta 17 urte bitarteko 28 gaztek hartu zuten parte, eta proiektuak 22.414 euroko finantzaketa izan zuen.

Gazteriaren arloan langileen mugikortasuna diruz laguntzen duten proiektuei dagokienez, hauek izan dira diruz lagundutako proiektuak:

- **Arterra Bizimodu.** Jasangarritasuna, herri ekologikoak eta arlo soziokulturala lantzen dituzten zortzi erakunde bazkidek osatutako proiektua da. Helburua da jardunbide egokiak eta jarduerak partekatzea, gazteekin jasangarritasuna lantzeko. 20.608 euroko finantzaketa izan du proiektuak.
- **Herri Ekologikoen Iberiar Sarea.** "Etorkizunera Irekita Sarea" proiektuak proposatzen du egoitza herri ekologikoetan duten gazte langileen nazioarteko sarea indartzea; horretarako, 14 herrialdeetako 30 parte-hartzaile mugitu ditu. Helburua da gazteek kalitatezko proiektuak sortzea, bai eta jasangarritasuna gaitzat hartuta hezkuntza ez-formaleko beste aukera batzuk sortzea ere. Proiektuak 34.746 euroko finantzaketa izan du.



- **Global Ecovillage Network of Europe.** "Jasangarritasuna gazteen artean lantzeko ikaskuntza esperientzialeko tresnak" proiektuak gazteriaren arloko 30 langileen prestakuntzarako topaketa bat proposatu du, Bridgedale360 izeneko online prestakuntza-plataforma bat ezagutarazteko. Plataforma hori baliabide bat da parte-hartzaileek prestakuntza jaso dezaten eta jasangarritasuna (ingurumenarena, ekonomikoa, soziala eta kulturala) sustatzera bideratutako hezkuntza-gaitasunak, -materialak eta -metodologiak eskura ditzaten. 29.092 euroko finantzaketa izan du.

Bestalde, funtsezko 1. ekintzaren barrenean, baina **Gazteen parte hartzeko jardueren** esparruan, hezkuntza formaletik kanpoko jarduerak jorratzen dira, gazteek bizitza demokratikoan parte hartzea sustatzen, bultzatzen eta errazten dutenak. Ekintza horren bidez, **gazteek bultzatutako eta gazte-talde informalek zuzendutako tokiko, nazio eta nazioz gaindiko partaidetza-proiektuak** babesten dira. **2023an proiektu bat gauzatu zen:**

- **Iruñeko Udala.** "Helmuga: Brusela" izeneko proiektua. 13 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendua. Proiektu horren helburua da nerabeek hirian duten inplikazioa areagotzea eta gazte gisa parte hartzeko interesa bultzatzea, herritartasun aktiboa, europar sentitzea eta Europako erakundeetako hurbiltasuna sustatuz. Finantzatutako zenbatekoa: 31.057 euro.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna

2.8. Bizikidetzaren arloko politikak

- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.8.1. Gazteria eta Bizikidetzaren azterlanak

Gazteen jarrerak, iritziak eta praktikak aztertzen dituzten urteroko ikerlan monografikoen sailean, aurtun, aztertu da bizikidetzaren zibikoa eta gazteek zer balio dituzten aniztasunarekiko errespetu eta tolerantziari dagokionez. Helburua zen zer egoeratan gauden adieraz diezaguketen zeinuak atzematea, bai eta etorkizuneko arriskuak zein diren ere, gazteriaren arloko esku-hartzeak eta politikak horren arabera orientatzeko eta zuzentzeko.

Azterlanak zenbait alderdi sakon begiratu ditu, hala nola gazteek zer interes duten albisteen gainean eta informazioa eskuratzeko zer bide erabiltzen dituzten, bai eta komunikabide bakoitzari zer sinesgarritasun ematen dioten ere. Asmoa zen jakitea Nafarroako gazteek zer portaera duten ingurune digitalean eta iritziak hedatzeko guneetan, eta ikertzea ea informatzeko nahiago dituzten norberaren interesekin edo sinesmenekin bat datozen hedabideak. Era berean, begiratu da gazteek zenbateko kezka duten fake news delakoen gainean eta egiaztatzen duten edukiak benetakoak direla.


Bestalde, aztertu da gazteek nola jokatzeko duten sare sozialetan tolerantziari eta bizikidetzari dagokionez, zer konfiantza duten gainerako gazteengan eta zenbait kolektiboren aurkako diskriminazio-joezarik duten. Azkenik, ikertu da zer iritzi eta jarrera du-

25. artikulua. Gazteak eta gizarte-zerbitzuak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, arlo horretan indarra duen araudiarekin bat eta toki entitate eskudunen laguntzarekin eta entitate sozialekin, lan egiten du gazteen ahultasun eta zaugarritasun egoerak saihesteko, honako kasu hauetan: ezgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten gazteak, gizarte bazterketa, genero indarkeria eta, adingabeen kasuan, babesgabetasuna edo gizarte-gatazka egoerak dituztenak.

ten gazte nafarrek immigrazioari buruz, bai eta zer iritzi eta jarrera duten ere LGBTBI kolektiboari buruz; zehazki, sexu-orientazioari eta identitate- edo genero-adierazpenari buruz.

Telefono bidezko elkarrizketen bidez egin zitzaizkien elkarrizketa 16 eta 30 urte bitarteko 800 gazteri. Azpimarratu beharreko datuen artean, gazte gehienek (% 76) immigrazioa positiboa edo oso positiboa da gizartearentzat, eta, termino idealetan, hamar gaztetik zortzik gizarte "heterogeneo eta multikultural" batean bizitzearen alde egiten du, alegia, jatorri, kultura eta erlijio desberdinetako pertsonak bizi diren gizarte baten alde.



Dokumentua hemen kontsulta dezakezu

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetz**
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua





2.8.2. Migrazioari buruzko literatura-topaketak

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean, Graviola argitaletxeak sortutako migrazioari buruzko narratiba-proiektu bat babestu du. Proiektu horren helburua da Nafarroako zein beste jatorri batzuetako ikusleak elkartzea, literatura- eta arte-jardueren bidez.

“Para quedarme aquí” literatura-topaketen zikloa, migrazioari buruzkoa, martxoan egin zen, migratzaileen gaineko diskurtso nagusiak aztertzeko. Erreferente artistiko berriak aurkitu nahi dira, ikuspegi multikulturala eta inklusiboa irudikatzen dutenak eta egokitzeko, integratzeko eta elkar ezagutzeko izan duten prozesuaz mintzatzen direnak. Hitzaldi eta lantegien zikloan Nafarroako, Venezuelako, Kolonbiako eta Txileko artistek parte hartu zuten.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak



- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetz**
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.8.3. En_Red_Arte

“En_Red_Arte” proiektua Nafarroako Gazteriaren Institutuak eta Tuter, Burlata, Lerín eta Faltzesko toki-erakundeek zuzentzen dute, eta haren helburua da praktika artistikoaren bidez gazteen arteko kulturarteko bizikidetz **sustatzea.**

“En_Red_Arte” da artearen bidez gizartean esku hartzeko programa bat. Pintura eta idazketa adimen emozionala garatzeko abiapuntutzat hartuta, tokiko gazte guztien gizarte-kohesioa sustatzea du helburu, bai eta gizarte-bazterketaren eta aurreiritzi kulturalen aurka borrokatzea ere. **Proiektu horretan, artearen bidez, bateratu egiten dira lan komunitarioaren hainbat alderdi (artistikoa, soziala, kulturala eta hezkuntzakoa); kulturen arteko bizikidetz bultzatzeko tresna erabilgarria izan nahi du.** Gazteen arteko elkarriketaren eta elkarrekintzaren garrantzia azpimarratzen du, bai eta sormena eta irudimena garatzeak duen garrantzia ere, etorkizuneko herri-tartasuna eratzeko beharrezkoak baitira. Praktika soziokultural horrek hobetu egiten ditu bizitzako ikaskuntzak, bakoitzak bere buruarengan duen segurtasuna, autoestimua eta gizarteratzea, eta gazteen artean ekintzailtza eta ekimena sustatzen ditu sormenaren bidez, kultura-adierazpenak gure herri eta hirietako elementu aberasgarri gisa ikusaraziz.

4 herrietako 337 gaztek parte hartu zuten Youssef Taki-k emandako lantegi artistikoetan. Proiektuarekin batera erakusketa bat prestatu zen, “Fuera de Lugar” izenekoa; proiektuarekin bat egin zuten udalerrietara eramane erakusketa hori, eta 222 lagunek parte hartu zuten bisita gidatuetan. Erakusketak 26 pintura-lan ditu, bi munduren etengabeko talkak astindutako identitatearen kontzientzia adierazten dutenak: errealitatea ulertzeko eta ikusteko bi modu, azken batez.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetz**
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.8.4. Erbesterako bidea

40 gaztek osatutako talde bat Nafarroan memoria historikoarekin lotuak dauden hainbat tokitan ibili zen, "Erbesterako bidea" programaren barrenean, Nafarroan hasi eta Kataluniatik eta Frantziako hegoaldeetik igarotzen den ibilbide batean barrena. Instituto de la Juventud (INJUVE) delakoak bultzatutako hezkuntza-proiektu bat da, Nafarroako Memoriaren Institutuarekin lankidetzan egina.

Aurten, lehen aldiz Nafarroatik abiatu zen. Prestakuntza ematen duen bidaia bat da; azken aldiko historia ezagutaraztea du helburu, garrantzi bereziko tokietan barrena ibilaldiak eginez. Ibilaldi horiez gain, prestakuntzako jarduerak egiten dira, bai eta jarduera soziokulturalak ere. Programan zehar, prestakuntza-lantegiak ematen dituzte gaien espezializatutako irakasleek, artistek eta ikertzaileek, bai eta tokiko hainbat eragilek ere. Jarduera horiek balio dute hiru ardatzen inguruko proiektu sortzaileak garatzeko: erbestea, memoria eta identitatea.



Ione Belarra Urtegak, Eskubide Sozialetako eta Agenda 2030eko ministroak, parte-hartzaileak agurtu eta haiekin hitz egin zuen Artikatik igaro zirenean, Ezkabako San Kristobal gotorlekua bisitatzetik bueltan.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetz**
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarrekin eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.8.5. Gazteria koloretsua

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiarekin batera, aisialdi inklusiboko ekimenak antolatzen ditu eta Nafarroako ehun gazte migratzailek parte hartzen dute horietan. Helburua da jatorri kultural desberdinak dituzten gazteek elkar ezagutzea eta haien arteko harremanak egitea.

Gazte horiek 18 eta 23 urte bitarte dituzte, eta IrriSarri Landen eta Baztan Abentura Parken egin diren abentura anitzeko jardueraz gozatzeko aukera izan dute. Parte hartu duten gazteak bi erakunderi lotuak daude, biek ere mentoretza partekatzen baitute: Kideak, Nafarroan familia-babesik ez duten migratzaile gazteei arreta integrala emateko zerbitzua, eta SEI, kulturarteko gizarte-hezkuntzako zerbitzua. Mentoretza metodologia sozial bat da, konfiantzazko loturretan oinarritutako harremanak sortzeko aukera ematen duena. Harreman horietan, boluntarioek, helduak eta esperientziadunak izaki, mentore gisa jokatzeko dute, Nafarroan familia-laguntzarik ez duten gazteei laguntzeko, haiekin denbora partekatzeko eta aholkuak emateko; izan ere, gazte horiek adin-nagusitasunera iristean tutoretzapeko adingabe izateari utzi eta inolako laguntzarik gabe gelditzen dira. Boluntario horiek beren erreferentziazko figura bihurtzen dira eta, horrela, gazte horien garapen pertsonala eta gizarte inklusiboagoa sustatzen dituzte.



Ekintza horiek ekimen jakin baten barrenean sartzen dira; zehazki, aisialdi-guneen bidez, Nafarroan bizi diren gazteentzat sozializatorako eta kulturen arteko bizikidetzarako guneak sortu nahi dituen ekimenaren barrenean. Testuinguru horretan, ekimenak inklusio osoaren eta kulturarteko bizikidetzaren alde lan egin nahi du, kultura-ingurune desberdinetako pertsonen artean partekatutako aisialdiko espazioak sustatuz. Aisialdirako gune horiek bertako gazteek eta migratzaileek osatzen dituztenez, programak horien guztien arteko loturak sortzen lagundu nahi du, funtsezkoa baita tokiko gizarte-sarea zabaltzeko. Gazteen arteko topaldirako gune horrek interakzioak positiboak izan daitezela lagundu nahi du, pertsonen eta taldeen arteko komunikazioari, trukeari eta aberastasunari dagokienez.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea**
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.9.1. Unx festival!

Institutuak Unx Festival! jaialdia egiten lagundu zuen. Ekitaldi horrek mahastizaintza, musika eta lurraldearen birpopulaketa batzen ditu, eta irailean egin zen. Proiektu horren helburua da Nafarroako musika-eszena indartzea, bai eta San Martin Unxeko despopulazioari aurre egitea ere, eta, azkenik, lurralde horretako ondare garrantzitsuena ikusaraztea, alegia, ardoa, dituen forma guztietan.

Jaialdiko kartelean zeuden Muerdo, Califato ³/₄, las Ninyas del Corro eta La Inquisición, bai eta Nafarroako zenbait proposamen ere, hala nola Raimundo el Canastero eta Sutan Ortzi. Era berean, Iruñeko zenbait arte-kolektibo ere ekitaldiaren funtsezko zati izan ziren, hala nola Marabiyak Sound eta Errege Sound System. Talde horiek agertoki propioa izan zuten, eta musika analogiko eta digitalaren arteko fusio bakar eta ausarta lortu zuten.



26. artikulua. Gazteak eta landa ingurunea.

Nafarroako lurralde aniztasuna kontuan harturik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erraztu egingen du gazteek gazteriaren arloko baliabide eta zerbitzuetara baldintza berdinetan iritsi ahal izatea, gazteek izan dezaten, nahi izanez gero, landa ingurunean gelditzeko modua.

Proiektua ez da kontzertu bat bakarrik; gizartea eta kultura ere lantzen ditu. *Unx Festival!* San Martin Unxeko Udalaren eta Emplea fundazioaren ekimena da. Bi urte baino gehiago daramatzate bertako erakundeekin eta herritarrekin batera despopulazioari aurre egiteko lanean.

2.9.2. Dirulaguntzen deialdia

Nafarroako herri txikienetan gazteei zuzendutako politikak hedatzen laguntzeko, badira dirulaguntza batzuk. Zehazki, jasoak daude Nafarroako toki-erakundeei zuzendutako dirulaguntzen azken deialdian: azaroaren 8ko 120E/2023 Ebazpena, zeinak onesten baitu Nafarroako toki-erakundeentzako dirulaguntzen deialdi bat, gazteriaren arloko tokiko politika publikoak bultzatu eta babesteko 2023-2024 aldian. Deialdi horrek 70.000 euroko berariazko atal bat du 5.000 biztanletik beherako herrietarako, hamalau eta hogeita hamar urte bitarteko (biak barne) gazteen parte-hartze aktiboa hobetzen lagunduko duten gazte-jardueren programak edo proiektuak egin daitezten sustatzeko.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura**
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarrekin eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.10.1. Arte Gaztearen Topaketak

2023an, Arte Gaztearen Topaketan 39. edizioa egin zen. Programa horrek artista gazteen parte-hartzea bultzatzen du, eta sustatzen du gazteek artea sor dezaten, bai eta ekoizpen horiek erakutsi eta zabal daitezkeen ere, bitartekaritzaren eta ekoizpen-prozesuaren artean loturak sortzeko mekanismoak bideratuz.

2023ko Topaketak 4 modalitate hauetan egin dira: Arte Plastikoak eta Ikus-entzunezkoak, Musika eta Eszenikoak, Literatura eta Diseinua. Aurkeztutako 87 proiektuetatik 30 aukeratu ziren hasieran, eta 800 euroko zuzkidura ekonomikoa lortu zuten obren ideia-eta ekoizpen-kontzeptuagatik, bai eta kalitate artistikoaren aintzatespenagatik ere.

Lan horiek erakusketa-fasera igaro ziren, eta horietatik 8 saritu ziren; bakoitzak 1.375 euro jaso zituen.

Hauek izan dira saritutako lanak: Arte Plastikoen eta Ikus-entzunezkoen modalitatean, Carlota Vidaren "Transición por corte", Leyre Arraizaren "Si te doblas, yo me retuerzo" eta Patricia Etxegararen "Way to Timisoara". Musika eta Eszenikoen moda-

27. artikulua. Gazteak eta kultura.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, arlo horietan eskudunak diren departamentuen bitartez eta indarra duen araudiarekin bat, gazteen kultura eta sormena sustatzeko politikak gauzatuko ditu.

litatean, Julio Montañanaren "Halley" eta Clarissa Costagliolaren "Un solo día". Literaturaren modalitatean, Leire Ipasen "Todo lo que es pequeño" eta Pilar Bravoren "Madrid, línea 6". Eta, azkenik, diseinuaren modalitatean, Anne Ganuzaren "Fragmentario" lana nabarmendu zuen epaimahaia.

Aurten, lehen aldiz, egonaldi artistiko bat egin da Le-karozen. Bertan, hautatutako pertsona guztiek aukera izan zuten topaketaz gozatzeko; tutoretzak eta lan-tegiak eman zituzten epaimahaiko hainbat kidek, eta diziplina desberdinen arteko sinergiak izan ziren.




2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea

2.10. Kultura

- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.10.2. Ezagutu Nafarroa

Unai Larrayaren “Esculturas de Urbasa” lanak jasozuen Nafarroako Gazteriaren Institutuak babes-tutako Ezagutu Nafarroa argazki lehiaketako gazte-kategoriako saria.



Saria 500 euroko asteburu-pasa bat izan zen, bi lagunentzako jarduerekin, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek egindako argazkirik hoberenarentzat.



2.10.3. Punto de vista Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia

Punto de vista, Nafarroako Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia, 2005ean sortu zen eta urtero egiten da Iruñean.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak bi atal finantzazten eta zabaltzen lagundu du: *X-Films* eta programatzaile gazteen atala.

“Programatzaile gazteak” programatzeko gune bat da, eta 16 eta 19 urte bitarteko 20 gazte aritu dira jaialdian aurkeztuko ziren film laburren proiektuak ikusten, hautatzen eta aurkezten. Horri esker hobeki ezagutzen dute programatu den hori eta lotura berezia egiten dute horrekin. Hala, zazpigarren artea deskubritu eta estimatu dezaten sustatzen da.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak



2.1. Osasuna

2.2. Berdintasuna

2.3. Hezkuntza

2.4. Enplegua

2.5. Ekintzailtza

2.6. Etxebizitza

2.7. Mugikortasuna

2.8. Bizikidetza

2.9. Landa-ingurunea

2.10. Kultura

2.11. Teknologia berriak


2.12. Parte-hartzea

2.13. Boluntarioritza

2.14. Nazioartean parte-hartzea

2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk

2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.10.4. Navarra International Film Festival

Navarra International Film Festival da sortzaileen eta diziplinen topagune bat, inklusioa sustatzeko eta zinearen eta haren protagonisten bitartez eztabaida soziala sortzeko.

Navarra International Film Festival jaialdiaren gaiak errealitate sozialaren eta balioetan oinarritutako hezkuntzaren gainekoak dira; horregatik, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren lankidetzaz New Generation atalaren sorreran zentratu da nagusiki.

New Generation atal berria lehiaketa bat da, eta helburu nagusizat du gazteek ikus-entzunezkoak sor ditzaten eta horren gaineko prestakuntza jaso dezaten sustatzea. Atal horretan biltzen dira 18 eta 30 urte bitarteko gazteek munduko edozein tokitan egindako lanak, eta epaimahai espezifiko eta propio bat du, sariak atal horretarako bakarrik ematen dituenak.

2.10.5. Literatura-lantegia

Otsailean sormenezko idazketari buruzko lantegi bat eman zuen Roberto Valenciak: "¿Soy lo que escribo?". Doneztebeko Belbieretxea gazte-aterpean izan zen, asteburu batez. 17 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua zen, eta 4 hausnarketa-saio egin ziren, autofikzioari eta nia oinarri duten kontakizunei buruzkoak. 15 lagunek parte hartu zuten.

2.10.6. Ageza (Ezporogi)

Ageza (Ezporogi) arte- eta ikerketa-proiektu bat da, udalari horretako 12 herriak zeharkatzen dituen egonaldi artistiko ibiltari baten inguruan egituratua. Herri gehienetan ez da inor bizi eta, horregatik, gaur egungo herri txikien errealitatearen kasu paradigmatico gisa hartzen da.

Getadar da aztertu beharreko leku hustu horietako bat, eta, hango gazte-aterpearen kanpoaldean, aurreko urteetan egindako arte-prozesuen eta hasitako lanen erakusketa egin zen.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak**
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarrekin eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.11.1. Pantailen gaineko jardunaldia

Gazteriarekin lotutako gaiei buruzko laugarren jardunaldiak azaroaren 21ean eta 22an egin ziren, Nafarroako Artxibo Nagusian.

Ehun lagun inguru bildu ziren (gazteak, irakasleak eta Nafarroako Gobernuako teknikariak) eta gazteen eta pantailen arteko harremanari heldu zioten. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta NASERTIC enpresa publikoak ere parte hartu zuten. Jardunaldiaren helburua izan zen gazteak, erakunde publikoak eta irakasleak elkartu eta azterketa eta eztabaida partekatzea, gazteek pantailen erabilerari buruz dituzten bizipenak, hausnarketak eta beharrak balioetsiz.

“JO! Pantallas” jardunaldiak balio izan zuen elkarrekin hausnartzeko gailu digitalen erabilera zuzenei eta okerre buruz. Hasteko, parte hartzeko dinamika bat egin zen, adin-taldeen arabera. Dinamika horretan, pantailen erabileran funtsezkoak diren hiru alderdi jorratu ziren: nola erabiltzen diren eta zer eduki kontsumitzen diren, eta zer bizipen eta pertzepzio eragiten dituzten; pantailak erabiltzearen onurak eta arriskuak; eta horiei aurre egiteko estrategia pertsonalak eta kolektiboak.

Gainera, Marta Beranuy, psikologoa eta NUPeko irakaslea, eta María Contreras, psikologoa eta UNAV-

29. artikulua. Gazteak eta teknologia berriak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berriazko politikak eta ekintzak gauzatuko ditu gazteak informazioaren eta komunikazioaren teknologietara irits daitezzen faboratzeko, unibertsaltasunaren printzipioa eta aukera berdintasuna bermaturik betiere.

eko irakaslea, gazteekin lan egiten duten profesionali prestakuntza ematen aritu ziren. Ikusi zen zein den pantailekin arazo bat izatearen eta haiekiko mendekotasuna izatearen arteko aldea, bai eta zein diren ere bi egoera horiek identifikatzeko elementuak, eta gazteekin partekatze oinarriko jarraibideak edo baliabideak ere landu ziren.

Parte hartu zuten Nafarroako 10 ikastetxetako 60 gaztek, KIDEAK programako gazteek, Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Universidad de Navarra-ko ikasleek, eta erakunde hauetako teknikariek: Nafarroako Gazteriaren Insititutua, Hezkuntza Departamentua, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua, Nafarroako Berdintasunerako Institutua, Foruzaingoko Delitu Informatikoen Unitatea, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua. Era berean, 13 toki-erakundetatik zetozen gazteriako teknikariek ere parte hartu zuten.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzak
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea**
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



31. artikulua. Gazteak eta herritarren parte-hartzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lan egingen du gazteek gizartean erabat eta berdintasunean parte har dezaten bermatzeko.



2.12.1. Gazteriaren arloko parte-hartze bidezko aurrekontuak

Herritarrek parte har dezaten proiektu edo politika publiko baten garapenaren maila guztietan, hasi definiziotik eta ebaluaziora arte, badira tresna batzuk. Horietako bat da aurrekontuak herritarren parte hartzearen bidez kudeatzea; zehazki, aurrekontuaren zenbateko jakin bat modu partekatuan kudeatzean datza. 2023an, programa horren zortzigarren edizioa egin zen; 30.000 euroko partida ekonomikoa izan zuen, modu parte-hartzailean gauzatzeko proposamen irabazleak egin zituzten gazteekin batera.

Aurkeztutako 12 proposamenek 1.600 boto lortu zituzten Nafarroan erroldatutako 18 eta 30 urte bitarteko pertsoneri zuzendutako herri-bozketan. 2023an, puntuaziorik handiena 3 proiektu hauek lortu zuten: Ezkaba Gazte Artzainak, Jardines Sonoros eta Zirriborro Idazketa Eskola.

Proiektu irabazleak:

“Ezkaba Gazte Artzainak” San Andres scout-taldeak sortua da; proposatu zuen 2022an egindako “Natura Ezkaba” proiektuari jarraipena ematea, Atarrabiako mendi-inguruak berreskuratzeko asmoz, bi fasetan banatutako ekintza desberdinekin. Lehen fasea artzaintzan oinarritu zen: artalde bat Urritzelkitik Atarrabiara eraman zuten. Horrekin, asmoa zen lanbideari irauten laguntzea, eta gazteak ohartzea zeinen garrantzitsuak diren azientak mendiak garbi edukitzeko; abereei esker, suteak prebenitzen dira eta mendiak modu natural batean zaintzen dira. Bi-

garren fasean, Ezkaba inguruko 54 zuhaitz- eta belar usaintsu-espezie babesean hartu zituzten hainbat elkarte, erakunde, ikastetxe eta zerbitzuz; horrekin, azpimarratu zuten zeinen garrantzitsua den inguru- ne hurbilak eskaintzen digun guztia ezagutzea.

“Jardines Sonoros” proiektuan *sound system* bat eraikitzen ikasi zuten; horrekin batera, Jamaikako kultura musikalaren oinarriak ikusi zituzten, eta azaldu zen zein den soinu-ekipo tradizionalen jatorria. Halaber, proiektuak aisialdirako bestelako proposamenak egon daitezkeen aldarrikatu zuen, eta horiek espazio seguruak, inklusiboak eta irisgarriak izan daitezela. 5 lantegi egin ziren (YouTuben daude eskuragarri); horietan, *sound system* kulturaren adituak direnen laguntzarekin, ikerketa eraikigarri hori egin zen.

“Zirriborro, Idazketa Eskola” idazle euskaldun gazteen topaketa izan zen; 4 egunez bildu ziren, urriaren 12tik 15era, Belbieretxea aterpetxean. 30 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte Nafarroako gazte euskaldunentzat egin den sormen-idazketako lehen eskola horretan. Euskarazko literaturaren, poesiaren eta bertsolariaren hamabi erreferente izan zituzten irakasle. Lantegietan, idazketaren hainbat alderdi eta genero jorratu ziren, hiru ildo nagusian banatuta: fikzioa, poesia-kantagintza eta ez-fikzioa. Ildo horietan, besteak beste, gai hauek landu ziren: *performance*-teknikak erabiltzea sormenezko idazketan, pertsonaiak nola eraiki eta aztertu, literaturaren eta gidoiaren arteko erlazioa, poesia, itzulpenaren sorkuntza-ahalmena eta kantua.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak



- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea**
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.12.2. Noche de Parti

“Noche de Parti” antzezlanaren 2021ean sustatu zuten Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiak eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak. Gazteentzako Informazio eta Aholkularitzarako Europako Agentziak (ERYICA) jardunbide egoki gisa aintzatetsi zuen 2022an. Aintzatespen horrekin, **The Good Practice Booklet** katalogoan, hots, Europako hainbat eskualdetan gazteei zuzendutako ekintzen bilduman, sartu zen antzezlanaren.

Antzerki formatuaz baliatuz, gazteek afera publikoetan parte har dezaten sustatzea da obraren helburua. Horren bidez, testuinguru informal eta erlaxatu batean, gazteen arteko hausnarketarako eta trukerako gune bat sortu nahi da. 30 minutuko iraupena du, eta antzeztu ondoren, eztabaida izaten da ikusleen eta antzezleen artean.

2023an 11 emanaldi egin dira: Goizuetan, Tafallan, Mendabian eta Larragan. Era berean, obra 7 ikastetxetan ere antzeztu da: Biurdana BHIIn, Iturrama BHIIn, Irubide BHIIn (*El Huerto* ikastetxeko ikasleak eta *Jesuitinas* ikastetxeak ere bertaratu ziren), *Benjamín de Tudela* BHIIn, *Valle del Ebro* BHIIn eta *La Presentación* ikastetxean. 2021az geroztik, dena 30 aldiz antzeztu da, eta 1.000 ikusle baino gehiago izan ditu Nafarroa osoan barrena.

2.12.3. PartizipAcción

Gazteen parte-hartzea sustatzeko programaren helburua da, aisialdiko prestakuntzaren bidez, gazteek parte hartzeko ekimen berriak sortzea. Gainera, pertsonen garapen integrala eta bizi diren komunitatearen garapena bilatzen du, tokiko ekintzek garapen eta egoera globalean duten eragina aztertuz.

Parte hartzea, erantzukizuna, errespetua, berdintasuna eta antzeko kontzeptuak lantzen dira prestakuntza honetan, herrian parte hartzeak duen garrantzia azpimarratuz. Helburua da gazteak etorkizuneko ekintzetan inplikatzeko, asoziazionismoa sustatzea eta autonomiarako baliabideak ematea, horrela aisialdi alternatiboa eskainiz, haiengan eta gizartean eragina izanen duena. Gazteak beren komunitatean inplikatzeko ahalduz dituen ekintza bat, balio solidarioak, berdintasunekoak eta inklusiokoak nabarmendu eta aniztasuna errespetatzen duena.

Programa hori herri hauetan garatu da: Uhartea, Iruña, Andia Mankomunitatea, Cintruénigo, Tuteran, Cadreita, Alesbes, Arguedas, Larraga eta Oibar. 208 gazteek parte hartu dute (165 neska eta 43 mutil).

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza**
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.13.1. Europako Elkartasun Kidegoa

Europar Batasunaren programa bat da, gazteak eta erakundeak gizarte-jardueretan inplikatzeko elkartasuna sustatzeko. Gazteei ikasteko, prestatzeko eta gaitasunak garatzeko aukera ematen die, bai eta premian daudenei laguntzeko aukera ere. Programa horrek bi ekintza ditu: boluntariotza-jarduerak eta elkartasun-proiektuak.

Proiektu horiek bi aukera ematen dituzte. Batetik, beste herrialde batzuetako gazteek boluntario-zerbitzua egin dezakete Nafarroan, tokiko komunitateen eta harrera-erakundeen mesederako (harrera-proiektuak). Bestetik, Nafarroako gazteak beste herrialde batzuetara joan daitezke jarduera solidario batean parte hartzera, gutxienez bi hilabetez eta gehienez ere urtebetez. Proiektuok gazteen arteko elkartasuna sustatzen dute, eta ikaskuntza-zerbitzu ezin hobea da hezkuntza ez-formalaren baitan. Proiektua bukatutakoan, gazte horiek Europako "Youthpass" ziurtagiria jasotzen dute, zeinak balio baitu programaren herrialde guztietarako. Europar Batasunak proiektu horiek finantzatzen ditu, barne direla bidaia, aseguruak, prestakuntza, ostatua, mantenua eta eskudirua.

32. artikulua. Gazteak eta boluntariotza.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du Nafarroako gazteek boluntariotza jardueretan parte hartzea, arlo horretako araudian ezarritakoarekin bat.



2023an Nafarroan boluntarioak hartzeko proiektuak

Aurten 40 boluntario hartu dira Nafarroako 11 entitate sozialetan. Pertsona horiek 2022an eta 2023an onetsitako boluntariotza-proiektuei lotuak daude.

Aurten, Europako Elkartasun Kidegoan sartu dira Iruñeko Udala eta Aita Lasa Zentroa, programan parte hartzeko beharrezkoa den kalitate-zigilua lortu baitute.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak



- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza**
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



Eskatzailea	Emandako dirulaguntza	Boluntarioak denera 2023an
Arterra Bizimodu	71.425	6
Geltoki Sozietate Mikrooperatiboa	28.305	3
<i>SETEM Navarra</i>	37.584	4
<i>Leonardino</i>	25.982	2
Tudela Comparte fundazioa	48.926	4
Gizakia Herritar fundazioa	26.808	3
Global Ecovillage Network of Europe	56.436	4
Gizakia Helburu	9.350	1
Tuterako Gurutze Gorria	55.869	6
<i>Ayuda Contenedores</i>	50.742	4
<i>Santuario Animal Corazón Verde</i>	39.374	3
GUZTIRA	362.475	40
Elkartasuneko proiektuak		
Itaka Escolapios fundazioa	7.140	

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza**
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



Europako Elkartasun Kidegoari buruzko prestakuntza-zikloa

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, programaren Agentzia Nazionalarekin lankidetzan, EBk finantzaturako prestakuntza-ekintza hauek hartu ditu 2023an:

- **Bi prestakuntza-ikastaro boluntariotza-aldia hasten duten gazteentzat.** Prestakuntza horiek hezkuntza ez-formaleko metodologia baten barruan daude. Partaideak 11 nazionalitatetakoak ziren eta boluntariotza hamar autonomia-erkidegotako erakundeetan egin zuten. Bi ikastaroak telematikoki egin ziren. Lehenbizikoa maiatzean izan zen eta 23 lagunek parte hartu zuten. Bigarrena abenduan egin zen eta 22 pertsonak parte hartu zuten. Prestakuntza-taldea 3 pertsonak osatzen zuten, eta INJUVEK finantzatu zuen, 11.360 euroekin.
- **“Time to move” kanpaina. Urtean zehar, aurrez aurreko 8 informazio-saio egin ziren ikastetxeetan eta Nafarroako Gazteriaren Institutuan bertan, ikasle gazteei zuzenduta,** bai eta boluntariotzako erakundeei ere. Gaia: “Programas Europeas de Juventud: Cuerpo Europeo de Solidaridad y



Erasmus+: Juventud”. 483 pertsonak parte hartu zuten, eta Europaren finantzaketa izan zuen, 3.332 eurokoa.

Europako Elkartasun Kidegoaren topaketa Nafarroan

Nafarroako Gazteriaren Institutuak topaketa bat antolatu zuen Belbieretxea gazte-aterpean, Europako Elkartasun Kidegoaren bitartez Nafarroan boluntariotza egiten duten gazteak elkartzeko.

Topaketan, parte-hartzaileek beren esperientzia ebaluatu zuten, eta informazioa eta esperientziak partekatu zituzten, bai eta etorkizuneko aukerei buruzko baliabideak ere.

Guztira, zazpi herrialdetako 16 gaztek hartu zuten parte: Alemania, Espainia, Italia, Errusia, Serbia eta Frantzia. Horiek guztiek laguntza-zerbitzua ematen dute Nafarroako hainbat gizarte-erakundetan eta GGKEtan, hala nola *Ayuda Contenedores*, *Fundación Tudela Compartir*, Tuterako Gurutze Gorria, Gizakia Herritar fundazioa, Geltoki Sozietate Mikrokooperatiboa, *Santuario Animal Corazón* eta *Setem Navarra*.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak



- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza**
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.13.2. Gazte-auzolandegiak

Gazte-auzolandegiak hainbat jatorritako gazteek gauzatutako proiektuak dira; gazte horiek borondatez aritzen dira. Proiektuek elkartasun-jarduera batean parte hartzeko aukera ematen diete. Jarduera horien helburua da bizikidetza, tolerantzia eta lankidetzaren espiritua bultzatzea, eta parte hartzen duten gazteen eskura jartzen dituzte hainbat eremutako kultura, historia eta tradizioak. Horretaz gain, gazteek naturarekin kontaktua izan dezaten bilatzen da, ingurumen- eta kirol-jarduerekin bidez.

Parte hartzeko 120 euroko kuota ordaindu behar da, eta horrek estaltzen ditu ostatu- eta mantenu-gastuak, bai eta programako jarduerak eta talde dinamizatzailea ere. Joan-etorriko garraioa ez da sartzen. Egiteko nagusiaz gain, jarduera ludiko eta kulturalak ere izaten dira.

Nafarroako gazte-auzolandegiak. 2023an, auzolanderako sei eremu izan dira, uztailan eta abuztuan, 15 eta 24 urte bitarteko gazteentzat. Denera 149 parte-hartzaile izan dira (76 neska, 72 mutil eta pertsona ez-bitar bat); horietatik 74 izan dira 15 eta 17 urte bitartekoak eta 75 izan dira 18 eta 24 urte bitartekoak. Leku hauetatik etorri dira: Andaluzia, Aragoi, Balear Uharteak, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Katalunia, Ceuta, Valentziako Erkidegoa,

Euskal Autonomia Erkidegoa, Extremadura, Galizia, Errioxa, Madril, Murtzia eta Nafarroa.

“Nafarroako Pirinioetako muga gotortuaren” eremuak Izaban eta Otsondon egin dira, eta sustatu dira Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin batera. Bi eremu horien ardatza izan da Espainiako Gerra Zibilaren eta gerra ondoko garairen memoriaren zati bat berreskuratzea. Garbiketa-, kontserbazio-, berreskuratze- eta dokumentazio-lanak egin dira.


Bertizko Jaurreriko eta Urbasako parke naturale-tako eremuak antolatu dira Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarekin batera. Parke horietako teknikariek zuzendu dituzte lanak, eta ekosistema horiek zaintzeko eta babesteko lana egin dute gazteek, baita bertako elementuak ezagutzeko ere. Garbiketa-, kontserbazio- eta dokumentazio-lanak egin dira.

Bargotako monasterioko bi eremuak antolatu dira Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin batera. Gazte boluntarioek Jerusalemgo San Joan Ospitaleko Zaldunen Ordenako multzo monastikoa induskatzeko eta arkeologian esku hartzeko lanak egin dituzte. Ordena horrek XIII. mendean emakumeen komentu bat izan zuen, Mañerun. Asmoa da aurkikuntzaren balioa agerian jartzea eta ondare hori sustatzea, epe ertaineko lan batean.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak



- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza**
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



Nafarroak antolatutako gazte-azolandegietan parte hartu dutenak:

	Denera	15 eta 17 urte artekoak		18 urtetik gorakoak		Pertsona ez-bitarrak
		Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	
Bargotako monasterioa I (uztailaren 1etik 15era)	25			12	12	1
Bargotako monasterioa II (uztailaren 16tik 30era)	25			16	9	
Bertizko Jaurerriko Natura Parkea (uztailaren 16tik 30era)	25			12	13	
Urbasa-Andia Parke Naturala (abuztuaren 1etik 15era)	24	13	11			
Nafarroako Pirinioetako muga gotortua - Baztan (abuztuaren 1etik 15era)	25	11	14			
Nafarroako Pirinioetako muga gotortua - Erronkari I (abuztuaren 16tik 30era)	25	12	13			
Parte-hartzaileak, denera	149	36	38	40	34	1



Parte-hartzaileen jatorria	Denera	%
Andaluzia	13	%8,72
Aragoi	15	%10,07
Balear Uharteak	7	%4,70
Kanaria uharteak	5	%3,36
Kantabria	6	%4,03
Gaztela-Mantxa	9	%6,04
Gaztela eta Leon	7	%4,70
Katalunia	12	%8,05
Ceuta	2	%1,34
Valentziako Erkidegoa	11	%7,38
Euskal Autonomia Erkidegoa	14	%9,40
Extremadura	3	%2,01
Galizia	0	%0,00
Errioxa	7	%4,70
Madril	18	%12,08
Murtzia	3	%2,01
Nafarroa	17	%11,41
Parte-hartzaileak, denera	149	%100

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntariotza**
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



Beste erkidego batzuetan eta atzerrian antolatutako gazte-auzolandegietan parte hartu duten gazte nafarrak:

Beste erkidego batzuetan eta atzerrian antolatutako gazte-auzolandegietan parte hartu duten gazte nafarrak 110 izan dira denera (67 neska eta 43 mutil). Gazte horietatik 19k nazioarteko auzolandegietara jo dute: Alemanian, Belgikan, Estonian, Frantzia, Italian, Portugalen, Txekiar Errepublikan eta Serbian aritu dira. Gainerako 91 gazteek aukeratu dituzte Aragoi, Balearrak, Kanariak, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Katalunia, Ceuta, Valentziako Erkidegoa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Extremadura, Galizia, Errioxa, Madrilgo Erkidegoa eta Nafarroa. Adinari dagokionez, 42 gaztek 14 eta 17 urte bitartean zituzten, eta 68 gaztek 18 eta 24 urte bitartean. Auzolandegietan gai hauek jorratu dira: ingurumena, arkeologia eta ondarearen berreskurapena, gizartea, artea eta kultura, eta hurrekin lan egitea.

	Denera	14 eta 17 urte artekoak		18 urtetik gorakoak	
		Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
Autonomia-erkidegoak	91	25	17	29	20
Nazioartea	19			13	6
Parte-hartzaileak, denera	110	25	17	42	26



Aukeratutako destinoaren zk.	Parte-hartzaileak	%
Aragoi	2	%1,82
Balear Uharteak	4	%3,64
Kanaria uharteak	2	%1,82
Kantabria	2	%1,82
Gaztela-Mantxa	6	%5,45
Gaztela eta Leon	6	%5,45
Katalunia	2	%1,82
Ceuta	2	%1,82
Valentziako Erkidegoa	7	%6,36
Euskal Autonomia Erkidegoa	8	%7,27
Extremadura	3	%2,73
Galizia	11	%10,00
Errioxa	10	%9,09
Madril	6	%5,45
Nafarroa	20	%18,18
Alemania	5	%4,55
Belgika	2	%1,82
Estonia	1	%0,91
Frantzia	3	%2,73
Italia	1	%0,91
Portugal	2	%1,82
Txekiar Errepublika	4	%3,64
Serbia	1	%0,91
Parte-hartzaileak, denera	110	%100,00

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzak
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea**
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.14.1. Cañas por Europa

Equipo Europa taldea gazte europazaleen elkartea da, eta helburu du Europar Batasuna gazteei hurbilagoa egitea eta gazteen parte-hartze politikoa sustatzea.

Nafarroan duen ordezkariak hainbat jarduera antolatzen ditu: besteak beste, *Cañas por Europa* ekimena antolatu zuen 2023an. Bertan, Begoña Alfaro García Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak parte hartu zuen. Eztabaida bat izan zen, giro lasaian, jakiteko zer iritzi duten gazte horiek etxebizitza eskuratzeari buruz eta berdintasunari buruz.



33. artikulua. Gazteak eta nazioarteko parte-hartzea.
Administrazioak, garapenerako nazioarteko lankidetzak-politikaren esparruan, gazteen parte-hartzea sustatu du. Europar Batasunaren jarraibideen esparruan eta horretarako diseinatzen diren programen bitartez, parte-hartzea, solidaritatea, mugikortasuna eta kontzientzia europarra sustatu ditu Nafarroako gazteen artean.

2.14.2. Joan, parte hartu eta konta iezaguzu

Nazioarteko lankidetzak-ekimena da; urtero inplementatzen dute Nafarroako Gazteriaren Institutuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak, GGKEekin lankidetzan. **Helburua da Nafarroako gazteak sentsibilizatzea planetaren hegoaldeko herrialdeen errealitatearen gainean, eta elkartasunaren eta garapenerako lankidetzaren balio soziala irakastea.**

Programa horren bidez, Nafarroako 20 eta 30 urte bitarteko gazteei beste herrialde batzuetara joateko aukera ematen zaie, beren lanarekin planetaren hegoaldeko komunitate txiroei laguntzeko; 3 eta 12 hilabete bitarteko epean aritzen dira.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea**
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk
- 2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



Hala, lortu nahi da parte-hartzaileak toki horietako errealitateaz jabetu daitezen, eta elkartasunaren balio sozialaz eta garapenerako lankidetzak bete dezakeen eginkizunaz ohartu daitezen. Era berean, parte-hartzaileek hirugarren pertsonen sentsibilizazioan eragin dezaten bilatzen da, haien bizipenak eta pertzepzioak hedatuz. Horretarako, "Konta iezaguzu" atala prestatu da Nafarroako Gazteriaren Institutuaren webgunean.

Edizio honetan, Nafarroako 12 gaztek Aljerian, Bolivian, El Salvadorren eta Mexikon egin dute beren lankidetzatza-lana. Tokian tokiko bazkideekin lankidetzatza-proiektuak garatzen dituzten GGKEak honako hauek dira: Elkartasuna, Mugarik gabeko Langile eta Teknikarien Elkarte, Onay, Nuevo Futuro, Sarean eta Mugarik Gabeko Ingeniaritzaren Nazioarteko Elkarte.



2.14.3. Terraza Europa

Abuztuaren 24an, **beste behin ere Europako Udako Ikastaroen esparruan**, *Equipo Europa* taldearekin lankidetzan, *Terraza Europearen* beste edizio bat egin zen. Europa ezagutzeko gunea, txoko atsegin batean, jakiteko zein den Europar Batasunaren etorkizunaren ikuspegia.

Gazteen prekarietateari buruzkoa izan zen ekitaldia, eta Xabierko gazteluan egin zen. Eztabaidan parte hartu zuten Eva Poptcheva *Renew Europe* taldeko eurodiputatuak, Carlos Amatriain Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendariak, Andrea Henry Espainiako Gazteriaren Kontseiluko buruak eta Helena Ripollés *Equipo Europa* taldeko buru ohiak.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea



2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk

2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua

2.15.1. Gazteentzako programak garatzea erakundeen bidez

Dirulaguntzen deialdiaren bidez, gazte-erakundeek 158.414,26 euroko laguntzak jaso zituzten, baldintza hauek betetzen dituzten proiektuak egiten laguntzeko: gazteek gauzatu behar dituzte; haien bizi-garapena bultzatu behar dute; gizartean parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatu behar dute; eta genero-ikuspegia kontuan hartu behar dute. Horietatik 152.292,88 euro hainbat jarduera garatzeko erabili dira eta 6.121,38 euro ekipamendua erosteko.

Entitatea	Zenbatekoa	Entitatea	Zenbatekoa
A.J. CLUB ALBATROS	6.214,52	A. JOVENES PARA CRISTO DE PAMPLONA	6.475,92
MOVIMIENTO JUVENIL INTERPARROQUIAL DE TAFALLA	6.850,18	A.J. GRUPO SCOUT GUNDEMARO	6.983,56
A.J. LANTEGI	6.923,54	A. ESPACIO UNIVERSITARIO CAMPUS GLOBAL	3.583,90
ENT. PREST. SERV. NTRA. SRA. DE LA PAZ	7.141,29	CLUB SIERRA DE ALAIZ	6.633,02
A. CLUB TIEMPO LIBRE XABIER	1.925,41	A.J. TEATROS MÁGICOS	-
A.J. QUINTO REAL	4.737,54	ZUTARRI GAZTE TALDEA	3.492,06
A.J. STA. TERESA DE ORVINA	5.568,07	BARACEA ESKAUT TALDEA	4.497,39
SCOUTS DE NAV. MOVTO. SCOUT CATÓLICO	7.131,25	LANTXOTEGI, PERTSONA ETA GIZARTE-LAN SUSTAPENERAKO ELKARTEA	4.600,68
DENDARI IZAR ESKAUT TALDEA	6.595,53	MIKAEL ESKAUT TALDEA	6.939,20
A.J. SAN PEDRO Y SAN SATURNINO	6.763,69	A.J. DONIANTZU	4.912,54
ZAGALES DE BURLADA	5.231,02	A.J. GRUPO SCOUT Vº TROPA	6.806,44
A.J. CLUB ISABA	4.476,89	A.J. GARAIZ	4.274,99
A. INFANTO JUVENIL BUZTINTXUREANDO TXURI	3.635,71	A.J. ONABIDE	1.202,97
URTIXINTXA ESKOLA	3.023,48	A.J. I BECCHI	7.076,54
SAN ANDRÉS ESKAUT TALDEA	4.281,88	A.J. CLUB UNIVERSITARIO MENDAUR	4.101,69
ALDEZAR SARE KOMUNITARIOA	4.175,74	FED. SCOUTS CATÓLICOS DE NAVARRA	2.157,62

34. artikulua. Gazte elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk.

Gazteek gizartean duten parte-hartzea erraztearren eta erantzukizun sozialeko kontzientzia sustazearren, gazte elkarte berriak sortzen lagunduko duten mekanismoak ezarriko dira eta gaur egungo elkar-te sarea indartuko da. Bereziki sustatuko da gazte-gaztetandik eta hezkuntzaren esparruan parte hartzea.

2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea



2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk

2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua

2.15.2. Nafarroako Gazte Entitateen Errolda

Nafarroako Gazteriaren Institutuak behar diren laguntza eta zerbitzuak ematen dizkie gazte-entitateei haien eraketa errazteko.

Gainera, Gazte Entitateen Erroldak sustatzen du, elkarteetan aritzearen bitartez, gazteek presentakuntza jasotzea eta gizartean parte-hartze aktiboa izatea.

2023an, erroldan 68 gazte-entitate zeuden inskribatuak: 50 gazte-elkarte, bestelako elkarteetako 8 gazte-atal eta gazteei zerbitzuak ematen dizkieten 10 erakunde.

Era berean, gazte-erakundeek beren jarduerak garatzeko instalazioak erabil ditzaten bultzatzeko, Nafarroako Gazteriaren Institutuak deskontuak eskaintzen ditu Belbieretxea gazte-aterpea erabiltzeko. Aurten, Gazte Entitateen Erroldan erregistratutako bederatzi erakundek erabili dute aterpe hori.

2.15.3. Gazteriaren Erakunde arteko Kontseilua

2023an amaitu zen parte hartzeko prozesua, eta onetsi zen 5E/2023 Foru Agindua, irailaren 18koa, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteriaren Erakunde arteko Kontseilua sortzen eta arautzen duena. Hala, erregelamendu bidez ezartzen dira kontseilu horren eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-arauak; gazteriaren arloko politika integralaren kontsulta- eta aholkularitza-organoa izanen da.

2011tik zegoen aurreikusia Gazteen Legean, baina orain arte ez da garatu. Kontseiluaren helburua da Nafarroan gazteriari buruzko politiken arloan diharduten eragileen aholkularitza biltzea, gazteen errealtatearekin lankidetzan aritzeko bide bat emanez.

Kontseilua osatzen dute, Nafarroako Gazteriaren Institutuko langileez gain, gazte-elkarteetako ordezkariak, tokiko gazte-mahaietako ordezkariak, ikasleen kontseiluek, berriemailek, Gazteriaren Kontseiluak, aisialdiko eskolek, Gazteen Informazio Sareak, eta erakunde sindikalek, politikoez, enpresariak, feministek, desgaitasunaren esparrukoek, migrazioen esparrukoek, sexu- eta genero-aniztasunari buruzkoek, eta, azkenik, norbanako gazteek.



2 Gazteriaren arloko zeharkako politikak

- 2.1. Osasuna
- 2.2. Berdintasuna
- 2.3. Hezkuntza
- 2.4. Enplegua
- 2.5. Ekintzailtza
- 2.6. Etxebizitza
- 2.7. Mugikortasuna
- 2.8. Bizikidetzatza
- 2.9. Landa-ingurunea
- 2.10. Kultura
- 2.11. Teknologia berriak
- 2.12. Parte-hartzea
- 2.13. Boluntarioritza
- 2.14. Nazioartean parte-hartzea
- 2.15. Gazteen elkarteak eta gazteen beste entitate batzuk

2.16. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua



2.16.1. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua

Elkartearen funtsezko xedea da gazte-elkartek Nafarroaren garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen parte har dezaten sustatzea, bai eta gazteen eskubideak zaintzea ere, diskriminazioa eta bazterketa eragotziz, eta haien garapen osoa bilatuz.

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak 88.000,00 euroko dirulaguntza jaso zuen 2023an. Dirulaguntza horren bidez, batetik, gastu arruntak, langile-gastuak eta jarduera-gastuak ordaindu dira (74.786,91 euro) eta, bestetik, 105,09 euro erabili dira ekipamendua erosteko, 2023ko martxoaren 23an erakunde horrekin sinatutako lankidetzatza-hitzarmenaren arabera.

Araudia eguneratzea

Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezartzen dituen ekainaren 21eko 53/2023 Foru Dekretuaren izapidetza 2023an amaitu zen eta uztailaren 17an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jarri zen indarrean. Testu horrek eguneratu egiten du 110/1986 Foru Dekretua, Gazteriaren Kontseilua sortu eta orain arte haren funtzionamendua arautu duena. Izan ere, partaidetzatza zabaldu eta erraztu egin nahi da. Horrela, ziurtatzen da legezko agindua betetzen dela eta gazteriaren egungo gizarte-

35. artikulua. Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.

Nafarroako Gazteriaren Kontseilua zuzenbide publiko entitate bat da, nortasun juridiko propioa duena eta bere xedek betetzeko gaitasun osoa duena. Jokatuko du foru lege honetan, bera sortzeko foru dekretuan eta bera garatzeko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.



errealitateara egokitzen dela araudia. Eguneratze horri esker, esparru juridiko egokia ematen zaio Kontseiluari, bere helburuak bete ditzan legezkoatasunaren barrenean, bai eta efikazia- eta efizientzia-printzipioen arabera ere.

Testu berriak aukera ematen du, halaber, gazte-entitateez gain, beste mota bateko entitateetako ordezkariak ere eskubide osoko kide izan daitezzen, hala nola Nafarroako unibertsitateetako ikasleen ordezkariak, Nafarroako Eskola Kontseiluko ordezkariak edo beren jarduerak Nafarroan garatzen dituzten gazte-elkarteen ordezkariak. Era berean, gazte-elkartek Kontseiluko kide izateko eduki behar duten gutxieneko partaide kopurua murriztu da, 50 kidetik 25 kidera. Kide anitzeko gobernu-organoen barrenean, gaur egun dauden organoez gain (batzar nagusia eta batzorde iraunkorra), aurreikusten du berme batzordea sortzea, zain dezan betetzen dela araudi erregulatzailera, babesten direla kide diren erakundearen eskubideak eta horiek betetzen dituztela beren betebeharrak, bai eta bitartekari izan dadin ere gatazketan. Azkenik, ezartzen da Kontseiluak gehienez ere urtebeteko epean aurkeztu behar duela bere barne antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua. Kontseiluaren autonomiaren barrenean egin beharko da arau hori, eta balioko du dekretuan aurreikusitako funtsezko erregulazioa garatu eta zehazteko.

3 Informazio korporatiboa

- 3.1. Erakundeekiko harremana
- 3.2. Organigrama
- 3.3. Kide anitzeko organoak
- 3.4. Aurrekontua
- 3.5. Harremanetarako datuak

3.1.1. Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuak, Foruaren Hobekuntzan jasotako foru-erakundeetako lehenak, bere zereginen artean, gobernu-ekintzaren kontrola, bultzada eta zuzendaritza politikoa betetzen ditu. Nafarroako Gazteriaren Institutua erakunde autonomoa da; urtearen lehen erdian, Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko **Departamentuaren mendekoa izan da eta, ondoren, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren mendekoa.** 2023an, Nafarroako Parlamentuak galdetutako eskaera hauei erantzun die:

Ahozko galderak	3
Idatzizko galderak	5
Informazio-eskeak	21
Agerraldiak	4

3.1.2. Bestelako entitateak

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, bere ohiko jarduera dela eta, hainbat eskumen-eremutako erakundeekin ditu harremanak. Autonomia erkidegoaren mailan, harremanak ditu Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin (NUKF). Gainera, hainbat foro eta kide anitzeko organotan parte



hartzen du, hala nola: **Berdintasunerako Departamentuarterko Batzordea, Boluntariotzaren Departamentuarterko Batzordea, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua, Nafarroako LGTBI+ Kontseilua, Despopulazioaren aurkako Borrokarako Batzordea, Nafarroako Landa Garapenerako Programaren Jarraipen Batzordea edo Bertizko Jaurerria Parke Naturalaren patronatua.**

Estatu mailan, Lurralde arteko Gazteria Batzordearen bileretan parte hartzen du, eta **Erasmus+ eta Europako Elkartasun Kidegoa programen Agentzia Nazionalaren Zuzendaritza Kontseiluko kide da, Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioaren Gazteriaren Institutuak (INJUVE) koordinatuta.** Era berean, Gazte Aterpetxeen Espainiako Sareko (REAJ) Batzorde Betearazleko eta Batzarreko kide da.


Espainiako Gazteriaren Kontseiluarekin ere badu harremana, hala nola Gazteriarekiko Elkarrizketarako Enbaxaden programarekin.

Europa mailan, Gazteentzako Informazio eta Aholkularitzako Europako Agentziaz (ERYICA) gain, Gazte Txartelaren Europako Elkarteko (EYCA) kide da, Gazteriaren Institutuaren (INJUVE) bitartez. Era berean, Institutuak lankidetzan dihardu Pirinioetako Lan Elkartarekin eta Akitania Berria-Euskal Autonomia Erkidegoa-Nafarroa Euroeskualdearekin; biak ere mugaz gaindiko topaguneak dira.



3 Informazio korporatiboa

- 3.1. Erakundeekiko harremana
- 3.2. Organigrama**
- 3.3. Kide anitzeko organoak
- 3.4. Aurrekontua
- 3.5. Harremanetarako datuak



Egitura organikoak aldaketa garrantzitsurik gabe jarraitzen du: zuzendari-tzaren mende daude zuzendariordetza bat, hiru atal eta bost bulego. 2023an, plantilla organikoan lanpostu hauek izan dira:

- Zuzendari kudeatzaile bat
- Zuzendariorde bat
- Hiru atalburu
- Bost bulegoburu
- Gazteriaren arloko goi-mailako bi teknikari
- Soziologo bat
- Erdi-mailako 2 teknikari
- Zazpi administrari
- Zerbitzu anitzetako arduradun bat
- Zerbitzu orokorretako bi langile
- Bi gizarte-hezitzaile

Nafarroako Gazteriaren Institutuaren estatutu berriak onetsi ziren azaroaren 15eko 242/2023 Foru Dekretuaren bidez; horietan, aurreikusten da gobernu-kontseilua eta kudeaketako zuzendaritza izanen direla zuzendaritza-organoak. Estatutuetan berrikuntza bat sartu da: hemendik aurrera, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua ere Institutuaren gobernu-kontseiluko kide izanen da. **Horrenbestez, gaur egun honako hauek osatzen dute Nafarroako Gazteriaren Institutuaren gobernu-kontseilua:**

- **Burua:** Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria.
- **Buruordea:** Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea.
- **Kidea:** Gazteriako zuzendariordea.

- **Kidea:** Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko burua.
- **Idazkaria:** Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko idazkari tekniko nagusia.

Gainera, aurten bi prestakuntza-beka izan dira. Bat Komunikazioan graduatutako pertsonei zuzenduta dago, erakunde horren kanpo-komunikazioarekin zerikusia duten zereginak garatzeko; helburua da erakundearen zerbitzuak eta lana nafarrei, oro har, eta gazteei, bereziki, ezagutaraztea. Bestea, Soziologian graduatutako pertsonei zuzendua dago; helburua da Gazteriaren Behatokiaren zereginetan laguntzea.



3 Informazio korporatiboa

3.1. Erakundeekiko harremana

3.2. Organigrama

3.3. Kide anitzeko organoak

3.4. Aurrekontua

3.5. Harremanetarako datuak

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak argitara emanen ditu atxikiak dituen kide anitzeko organoen zerrenda, haien osaketa, antolaketaren eta funtzio-namenduaren arauak, hartzen dituzten erabakiak eta bilkuretako aktak.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 70.

artikuluak xedatzen du Nafarroako Gobernuaren web-atarian herritarrek eskuratzen ahalko dutela, besteak beste, Foru Administrazio Publikoko kide anitzeko organoen inbentarioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu-egitura berria ezarri da legegintzaldia aldatzarekin batera; beraz, inbentario hori eguneratu da. Hona hemen Nafarroako Gazteriaren Institutuari atxikitako kide anitzeko organoak, bai eta haien izena, osaera, bileren aldizkakotasuna, eginkizun nagusiak eta erreferentziako araudia ere:

IZENA	OSAERA	ALDIZKAKOTA-SUNA	EGINKIZUNAK	ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO GAZTEENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUEN SAREA KOORDINATZEKO BATZORDEA	<p>Kideak:</p> <p>Burua: Gazteriaren Zuzendariordea.</p> <p>Buruordea: Bide Prestakuntzako eta Hezkuntzako atalburua.</p> <p>Kideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Argibide eta Prestakuntzako bulegoburua. - Hiru ordezkari toki-entitateen mendeko gazteen informazio-bulegoetakoak, unibertsitateetakoak edo Soldaduaren Informazio Bulegoetakoak. - Bi ordezkari, toki-entitateen mendeko gazteentzako informazio-guneetakoak. - Ordezkari bat, elkarteen mendeko gazteentzako informazio-guneetakoak edo -bulegoetakoak. 	Urtero	Ofizialki onartutako Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarea koordinatzea	109/2005 Foru Dekretua, abuztuaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarea sortu eta arautzen duena



3 Informazio korporatiboa

3.1. Erakundeekiko harremana

3.2. Organigrama

3.3. Kide anitzeko organoak

3.4. Aurrekontua

3.5. Harremanetarako datuak

IZENA	OSAERA	ALDIZKAKOTA-SUNA	EGINKIZUNAK	ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA
<p>NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUKO GOBERNU-KONTSEILUA</p>	<p>Kideak:</p> <p>Burua: Gazteriaren arloan eskumena duen kontseilaria.</p> <p>Buruordea: Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea.</p> <p>Kideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gazteriaren zuzendariordea. - Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko burua. <p>Idazkaria:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gazteriaren arloan eskumena duen departamentuko idazkari tekniko nagusia. Baldin hutsik gelditzen bada departamentuak Gobernu Kontseiluan dituen kideen zuzendaritza karguetako bat, haien ordezkioak izendatuko ditu departamentuko kontseilari titularrak, aldi baterako, behin betiko izendapenak egin bitartean. 	<p>Urtero</p>	<p>Gobernu Kontseiluak ahalmen hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Urtero, erakunde autonomoaren aurrekonturako aurreproiektuaren proposamena onestea. b) Gazteriaren Institutuaren ondarea administratzea. c) Erakunde autonomoaren zuzendaritza-funtzioak kontrolatu eta gainbegiratzea. d) Nafarroako Gazteriaren Institutuko Kudeaketako Zuzendaritzak presako kasuetan hartu behar izan dituen ebazpenak ezagutzea. 	<p>242/2023 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren estatutuak onesten dituena.</p>



3 Informazio korporatiboa

3.1. Erakundeekiko harremana

3.2. Organigrama

3.3. Kide anitzeko organoak

3.4. Aurrekontua

3.5. Harremanetarako datuak

IZENA	OSAERA	ALDIZKAKOTA-SUNA	EGINKIZUNAK	ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA
<p>NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN GAZTERIAREN DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEA</p>	<p>Kideak: Burua: Gazteriaren arloan eskumena duen kontseilaria.. Buruordea: Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea. Idazkaria: Gazteriaren zuzendarioordea. Kideak: - Euskarabideko zuzendari kudeatzailea. - Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusia. - Lehendakariitzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia. - Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusia. - Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia. - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia. - Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusia. - Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari gerentea. - Ekonomia Sozialeko eta Laneko zuzendari nagusia. - Landa Garapenerako zuzendari nagusia. - Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia. - Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailea. - Etxebizitzako zuzendari nagusia. - Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea. - Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren zuzendari nagusia. - Ingurumeneko zuzendari nagusia. - Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzailea. - Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea. - Lanbide Heziketako, Digitalizazioko eta Hezkuntza Zerbitzuetako zuzendari nagusia. - Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusia. - Migrazio Politiketako zuzendari nagusia. - Hezkuntzako zuzendari nagusia. - Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia. - Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko zuzendari nagusia.</p>	<p>Seihilekkoa</p>	<p>Gazteentzako politika transbertsalak koordinatzeko eta bultzatzeko organoa da, eta zuzenean atxikitzen zaio Nafarroako Gazteriaren Institutuaren Kudeaketako Zuzendaritzari.</p> <p>Hona hemen bere eginkizunak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Nafarroako Gobernuko arlo guztiak sentsibilizatzea gazteentzako politikak bultzatzeko eta horiek unean-unean talde bakoitzaren ezaugarrien arabera bideratzeko beharriari buruz. Gazteriari buruzko 11/2011 Foru Legean gazteriaren arlokoak diren politikak garatzeko lineak proposatzea, baita legegintza bakoitzean gazteriak izanen dituen erronkei eta aukerei heltzeko lehenetsunak ere. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen jarduerak ezagutzea, koordinatzea eta haietaz txostena egitea gazteengan eragina duten gaietarako dagokienez. Berariazko eta beharrezko batzordeak sortu eta sustatzea gazteriaren arloko politikak bideratzeko, bai eta berariazko batzorde horietan egiten diren txostenak onestea ere. Gazteriaren Foru Estrategiari segimendua egitea, bai eta Nafarroako Gobernuak gazteriaren arloan martxan jartzen dituen jarduketarako planei ere. Gazteriari loturiko aferetan Nafarroako Gobernuak eskatzen dizkion gaietarako buruzko iritzia ematea. Indarra duen antolamendu juridikoarekin bat esleitzen edo agintzen zaion beste edozein eginkizun. 	



3 Informazio korporatiboa

3.1. Erakundeekiko harremana

3.2. Organigrama

3.3. Kide anitzeko organoak

3.4. Aurrekontua

3.5. Harremanetarako datuak

IZENA	OSAERA	ALDIZKAKOTA-SUNA	EGINKIZUNAK	ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA
<p>TOKIKO GAZTERIAREN POLITIKA KOORDINATZEKO BATZORDEA</p>	<p>Kideak:</p> <p>Burua: - Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari-kudeatzailea.</p> <p>Buruordea: - Gazteriako zuzendariordea.</p> <p>Idazkaria: - Gazteentzako Programen eta Entitateekiko Harremanen Ataleko burua.</p> <p>Kideak:</p> <p>a) Nafarroako Gazteriaren Institutuko teknikarien bi ordezkari.</p> <p>b) Nafarroako toki-erakundeen bost ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuak.</p> <p>c) Gazte bat, Nafarroako Gazte Kontseiluaren ordezkari, Kontseiluak proposatuta.</p>	<p>Urtero</p>	<p>a) Nafarroako toki-erakunde guztietan sustatzea gazteentzako politikak bultzatzen eta horiek unean-unean kolektiboaren ezaugarrien arabera bidera ditzaten.</p> <p>b) Administrazioetan egiten diren jarduerak ezagutzea, koordinatzea eta haietaz txostena egitea gazteengan eragina duten gaiei dagokienez.</p> <p>c) Nafarroako Gazteriaren Institutuak urtero egiten dituen deialdiei eta programei buruzko informazioa jasotzea.</p> <p>d) Behar diren berariazko batzordeak sortu eta sustatzea gazteriaren arloko tokiko politikak bideratzeko, bai eta berariazko batzorde horietan egiten diren txostenak onestea ere.</p> <p>e) Komenigarriak iruditzen zaizkion neurriak proposatzea gazteria eta gazteek udal mailan bizitza politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean izan beharreko parte-hartzea sustatzeko eta bultzatzeko.</p> <p>f) Beste administrazio publiko batzuetan antzeko helburuak dituzten entitate eta organoekin komunikazioa, harremanak eta trukea sustatzea.</p> <p>g) Gazteek parte hartzeko batzordeak eta/edo gazteriaren kontseiluak tokiko eta/edo eskualdeko mailan sor daitezten sustatzea eta erraztea.</p> <p>h) Esleitzen edo agintzen zaion beste edozein eginkizun, indarra duen antolamendu juridikoarekin bat.</p>	<p>189/2022 Foru Agindua, uztailaren 11koa, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emana, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeiko Batzordea arautzen duena</p>



3 Informazio korporatiboa

- 3.1. Erakundeekiko harremana
- 3.2. Organigrama
- 3.3. Kide anitzeko organoak**
- 3.4. Aurrekontua
- 3.5. Harremanetarako datuak

IZENA	OSAERA	ALDIZKAKOTA-SUNA	EGINKIZUNAK	ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA
<p>GAZTERIAREN ERAKUNDE ARTEKO KONTSEILUA</p>	<p>Kideak: Kontseiluko burua: Nafarroako Gazteriaren Institutuko kudeaketako zuzendaria. Kontseiluko buruorde: Gazteriako zuzendariordea. Idazkaria: Nafarroako Gazteriaren Institutuko Zeharkako Ekintzen eta Gazteriaren Behatokiaren Ataleko burua. Kontseiluko kideak: a) Bi gazte, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren Gazteen Entitateen Erroldan inskribatutako gazteen entitateak ordezkatzeko. b) Hiru gazte, Nafarroako Foru Komunitatean ofizialki eratu diren tokiko gazteen mahaiak ordezkatzeko. c) Hiru gazte, Nafarroan dauden unibertsitateetako ikasleen ordezkari-organoko bakoitza ordezkatzeko. d) Bi gazte, Gazteentzako Informazioaren Berriemaileen Programan parte hartzen dutenak. e) Gazte bat, Nafarroako Gazte Kontseilua ordezkatzeko. f) Pertsona bat, Nafarroako Gazteriaren Institutuak aitortzen dituen aisialdiko hezkuntza eskolak ordezkatzeko. g) Pertsona bat, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarearen Koordinazio Batzordea ordezkatzeko. h) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari gehien dituzten lau sindikatuen gazte bana, sindikatuak ordezkatzeko. i) Gazte bat, Nafarroako Enpresaburu Gazteen Elkartea ordezkatzeko. j) Gazte bana, Nafarroako Parlamentuan ordezkariak duten parlamentuko talde bakoitza ordezkatzeko. k) Gazte bat, feminismoaren alorrean ari diren entitateak ordezkatzeko. l) Bi gazte, dibertsitate funtzionala duten pertsonak ordezkatzeko, Nafarroan Desgaitasuna duten Pertsonen Batzordeak proposatuta. m) Bi gazte, Nafarroan erregistratutako aniztasun etnikoko elkar- teak ordezkatzeko. n) Gazte bat, Nafarroako sexu eta genero aniztasunaren kolektiboak ordezkatzeko. o) Hiru gazte, Nafarroan bizi direnak eta kontseilu honetan parte hartzeko interesa dutenak.</p>	<p>Urtero</p>	<p>Gazteriaren Erakunde arteko Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira: aa) Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legean dauden gazteriaren arloko politikak garatzeko lan-ildoak proposatzea, bai eta gazteriaren erronkei eta aukerei aurre egiteko lehentasunak ere. b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioek eta beste entitate batzuek berariaz gazteei eragiten dizkieten gaietan egiten dituzten jarduketak ezagutzea. c) Gazteriaren Foru Estrategiaren jarraipena egitea, bai eta Nafarroako Gobernuak gazteriaren arloan abian jartzen dituen jarduera-planena ere, eta horiek gauzatzeko proposamenak egitea. d) Gazteriari loturiko aferetan Nafarroako Gobernuak eskatzen dizkion gaiei buruzko iritzia ematea. e) Esleitzen edo agintzen zaion beste edozein eginkizun, indarra duen antolamendu juridikoarekin bat.</p>	<p>5E/2023 FORU AGINDUA, irailaren 18koa, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteriaren Erakunde arteko Kontseilua sortzen eta arautzen duena.</p>



3 Informazio korporatiboa

- 3.1. Erakundeekiko harremana
- 3.2. Organigrama
- 3.3. Kide anitzeko organoak
- 3.4. Aurrekontua**
- 3.5. Harremanetarako datuak

2023ko aurrekontuaren exekuzioaren laburpena:

AURREKONTUAREN EXEKUZIOA	AURREKONTU BATERATUA (€)	EXEKUTATUTAKO AURREKONTUA (€)	EXEKUZIOAREN EHUNEKOA
LANGILERIA-GASTUAK	1.274.314,59	1.028.302,43	%80,69
GASTU OROKORRAK ETA ADMINISTRAZIOKOAK	124.957,00	81.431,07	%65,17
ZENTROAK	145.062,11	176.754,04	%121,85
GAZTERIA	1.595.410,89	1.467.302,07	%91,97
DENERA	3.139.744,59	2.753.789,61	%87,71
GAZTERIA (Aurrekontuko partida nagusiak)			
Nafarroako Gazte Jaialdia	50.000,00	50.000,00	%100,00
Publizitatea, zerbitzu publikoen informazio-kanpainak	10.000,00	15.908,59	%159,09
Gazteria-erakundeetara atxikitze kuotak	12.500,00	12.563,64	%100,51
Gazteen ekintzaitza-programa	10.000,00	2432,1	%24,32
Zeharkako ekintzak	42.000,00	26.035,93	%61,99
Hezkuntza ez-formaleko jarduerak	50.000,00	49.785,11	%99,57
Sustapen-programak: gazteen artea, elkartasuna, kontsumoa eta beste batzuk	96.000,00	86.748,40	%90,36
Gazteen mugikortasun-programak	151.000,00	149.622,81	%99,09
Gazte-txartela	326.300,00	273.731,88	%83,89
Gazteen behatokia	54.000,00	44.110,55	%81,69
Gazteen parte-hartzea babesteko eta sustatzeko ekintzak	20.000,00	29.630,00	%148,15
Aurrekontu parte-hartzaileak gazteekin	30.000,00	29.693,68	%98,98
Ongizate emozionalerako aholkularitza	20.000,00	20.000,00	%100,00
Gazteentzako Informazio Sarea	15.500,00	19.146,75	%123,53
Gazteentzako Informazioa Emateko Berriemaileen programa	10.000,00	9.954,19	%99,54
Toki erakundeek gazteentzako programak egiteko dirulaguntzak	312.294,61	308.392,34	%98,75
Praktiketako teknikarientzako prestakuntza-bekak	28.103,00	24.899,95	%88,60
Gazteendako prestakuntzarako laguntzak	41.503,28	44.531,00	%107,30
Sariak, lehiaketak eta txapelketak	35.000,00	42.500,00	%121,43
Gazte-txartelaren sariak, lehiaketak eta txapelketak	12.710,00	5.200,00	%40,91
Gazte elkarte programetarako dirulaguntzak	183.000,00	152.292,88	%83,22
Gazteriaren Kontseilua	85.000,00	82.367,99	%96,90
Hitzarmena Asociación Juvenil CTL Eguaras elkartearekin	10.000,00	10.000,00	%100,00
Nafarroako Gazteriaren Kontseilurako ekipamendua	3.000,00	105,09	%3,50
Gazte elkarte ekipamenduetarako dirulaguntza	10.000,00	6.121,38	%61,21

Materien kontsumoari buruzko datuen artean, garrantzitsua da elektrizitatearen eta paperaren magnitudeak adieraztea. Elektrizitatearen kasuan, Nafarroako Gazteria Institutuaren egoitza nagusiak 27577 kWh kontsumitu zituen 2023an. Bestalde, paperari dagokionez, 57500 folioren erosi dira.



3 Informazio korporatiboa

- 3.1. Erakundeekiko harremana
- 3.2. Organigrama
- 3.3. Kide anitzeko organoak
- 3.4. Aurrekontua**
- 3.5. Harremanetarako datuak




ENTITATEA

GZ | Gazteria Zuzendariordetza

NGI | Nafarroako Gazteriaren Institutua

Gazteriarako erabilitako aurrekontuaren bilakaera:





3 Informazio korporatiboa

- 3.1. Erakundeekiko harremana
- 3.2. Organigrama
- 3.3. Kide anitzeko organoak
- 3.4. Aurrekontua
- 3.5. **Harremanetarako datuak**

Nafarroako Gazteriaren Institutua Iruñeko Yanguas y Miranda kaleko 27ko etxabeen dago. Bulegoan arreta presentziala, telefono bidezkoa eta telematikoa ematen da.

Informazio-eskaerei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira: txartelen gaineko zalantzak, Gazte Txarteleko jarduerak, garraioa, prestakuntza eta enplegua, boluntariora, kanpaldiak, kultura-bonua eta beste hainbat informazio.

Harremanetan jartzeko:

juventud@navarra.es
Tlf: 848 42 39 00 / 650 801 364

Sare sozialak:





2023ko **Urtekaria**



Instituto
Navarro de
la Juventud

Nafarroako
Gazteriaren
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

